

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2023ko MARTXOA - 320 zenbakia

PUEBLA DE
YELTES 12474 KM

CANGAS DEL
NARCEA 12737 KM

MANU LEO
SUSANA
PA'CO
SEGOLIA

ERMUA 10845

**Asier Madarieta,
Antartikatik bueltan
bizipenez josita**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Gaia: ume-kantua.

Don-don kikilimon

(Entzuteko: www.alboka.es)

Don-don kikilimon
zarra kuke
zarra mon,
pike pike
tortolike
banbu.
Zile ketake bu!



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Estibalitz
González, Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Asier Madarieta.

LAGUNTZAILEAK:

Eskolabarri ikastetxea, Antonio
Hernández 'Cuco', Patxi López,
Alicia Lorenzo, Valentin Mugarza,
Jon Saez eta Libe Solozabal.

ARGAZKIAK:

Alboka Musika Eskola, Rosa Conde,
Charo de Cruz, Fausto Garde,
Estibalitz González, Mikel González,
Oihane Luengo, Asier Madarieta,
Jesus Mari Martín, Jon Moma,
Valentin Mugarza, Nekane Olalde,
Ongarai Eskola, Isma Pradera,
Nacho del Río, Anne Ruiz,
Nahia Ruiz Albizuri, Natalia
Urmakaeva eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Agirre,
Piedi Eizagirre
eta Koldo Narbaiza.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturririk ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



ANNE RUIZ · Norvegia

“Ezezaguna ezagutzearen sentsazioa eta adrenalina sentitu nahi nuen”

Zazpi urte daramatza etxetik kanpo Anne Ruiz ermuarrak, Palentziara erizaintza ikastera joan zenetik. Aldaketa handienari, ordea, duela urtebete ekin zion, Norvegiara bizitzera joan zenean.

Testua **LIBE SOLOZABAL**

Zerk bultzatu zintuen kanpora joatera?

Txikitatik izan dut argi, Ermuan oso gustura egon arren, gehiago nahi nuela. Palentziara joan nintzenean, asko gustatu zitzaidan jende eta kultura berriak ezagutzea. Beraz, karrera bukatu nuenean, berriro ezezaguna ezagutzearen sentsazioa eta adrenalina sentitu nahi nuen, eta monotonia alde batera utzi.


Erabaki erraza izan zen?

Batere ez! Guztiok sentitzen gara seguruago gure konfort-zonan, baina familiak eta lagunek beti babestu dituzte nire erabakiak. Gainera, ikastaroko kide batzuk ere Norvegiara etorri ziren, eta egoera berean zeuden pertsonak ezagutzeak asko lasaitu ninduen.

“Hemengo berdintasun-kulturak atentzioa eman zidan: inor ez da inor baino gehiago”

Nolakoa da Norvegiako bizitza orokorrean?

Gutziz desberdina: ohiturek eta kulturak ez daukate inongo zerikusirik. Bestalde, ez ditut hemengo plater tipiko guztiak dastatu, baina badira barneratu ditudan batzuk: *tacofredag* (ostiraletako takoak) edo *vafler med rømme og syltetøy* (opiltxoak marmeladarekin eta Nor-





vegiako krema garratzarekin). Horrez gain, herrialde guztiz hotza da zentzu guztietan. Ez da ohikoa kalera lagunekin irtetea, dena da garestiagoa eta etxeetan geratzeko ohitura daukate. Nahiko itxiak dira, eta zaila da haien adiskidetasun harremanetan sartzea. Hala ere, gehiago ezagutzearan oso jatorrak dira eta edozer gauzatan laguntzeko prest daude. Harrotasunez betetzen nau hemen oso lagun onak egin ditudala esateak.

Badago atentzioa eman dizunik?

Bai, hemengo berdintasun-kultura: inor ez da inor baino gehiago. Lanean zerbait txarto eginez gero ere, seguruenik inork ez du ezer esango, edo gozotasunez esango dizute beste modu batera egiteko, txarto ez sentiarazteko.

Eta eguraldia?

Leku batetik bestera asko aldatzen da. Bergenen (fiordoetan) etxean bezala sentitu nintzen, ez zuen hotz askorik egiten eta ez zuen atertu. Fagernes (erdialdean) -23°C izan genituen. Egon naizean azken lekuan, Trondheimen, nahiko ondo, -5°C . Udan eguzkia ateratzen da eta eguraldi ona ere egiten du!

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Natura eta paisaiak. Fiordoak, glaziarrak eta aurora borealak ikus daitezke. Herrialde ederra da benetan. Gainera, elurretako jarduera pila bat egin daitezke: txakurrekin leran elurretatik paseatu, glaziarrak eskalatu, elurrezko txirristetatik bota...

Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu bertan?

Hemengo hizkuntza norvegiera da, baina denek hitz egiten dute oso ondo ingelesez (lanean ingelesez hitz egiten uzten ez didaten arren). Etorri aurretik hasi



nintzen norvegiera ikasten, eta ondo moldatzen naitzela esan dezaket.

Nolakoa da zure egunerokotasuna?

Erizaina naiz eta kontratu laburrak ditudanez, herrialdeko leku ezberdinak bisitatzeko aprobetxatzen dut. Aldi berean, Osakidetzaren azterketa baterako ikasten ari naiz, eta norvegiera B2 titulua ateratzeko.

Eta denbora librean?

Laneko ordutegiak ez dira oso onak, hortaz, lagunekin egun batzuk libre hartu ahal dudan bakoitzean, saiatzen naiz leku berriak bisitatzeko edo inoiz egin ez ditudan gauzak egiten. Bestalde, futbol talde batera batu nintzen, batez ere sozializatzeko eta ohiturak ezagutzeko.

Zerbait botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunak, batez ere, baina baita janaria: patata-tortilla, zalantzarik gabe.

Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Egunotan Ermuan nago oporretan, baina laster Norvegiara itzuliko naiz denboraldi luze baterako. Ahal izanez gero, astebete hartuko dut maiatzean, bestela irailera arte ez naiz bueltatuko. Istorio eta anekdota gehiago ekarriko ditut!

“Motorrean teknika behar da, baina ausardia ere bai”

JUNE LÓPEZ · Motorzalea



Hamahiru urte ditu eta bost zituenean jarri zen bere lehen motorrean. *Cross Country* eta *Enduro Outdoor* modalitateetan lehiatzen du eta hainbat lasterketa irabazitakoa da. Ilusio eta diziplina handiz, Espainiako Enduro txapelketarako prestatzen dihardu. Kirol honen nondik norakoak ezagutzeko, igo gaitezen 85 zilindradako bere motorrera. 2-3-1... Azeleragailua topera!

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Nondik datorkizu motorrekiko zaletasuna?

Aitarengandik, betidanik oso motozalea izan da. Berearekin eta bere lagunekin joaten naiz motorrean ibiltzera. Nire irakaslea eta nire mekanikoa da. Lasterketetan ama ere egoten da, nire denborak-eta zaintzen, kronoetan karreratik kanpo ez geratzeko.

Noiz hasi zinen lehiatzen?

Zazpi urterekin. Gogoratzen dut *selfie-makila* oparitu zidatela eta harekin egin nuela lo, poz-pozik!

Zer da enduroa?

Motorrean egiten den menditik zeharreko ibilbide bat. Lasterketetan zirkuito bat ere egoten da markatuta: krono bat egiten da eta denborak hartzen dira. Bestalde, *enduro outdoor* mendiko zirkuitoa da soilik,

aldapaz beteta, eta *cross country*, moto-kros eta *enduro*ren arteko konbinazioa da.

Ze ekipamendu behar duzu?

Petoa, belaun-babesak, bota onak eta kaskoa, noski. Behin haitz bat jo nuen martxan nindoala eta behatzak apurtu nituen; orduan konturatu nintzen bota onak ze garrantzitsuak diren!

Ohikoa da istripuak izatea?

Ohikoa ez, baina gertatzen dira, arrisku hori beti dago.

Zelan entrenatzen duzu?

Astean behin. Asteburuetan, edo lasterketetara noa edo baserrira entrenatzera. Aitak krono bat egin dit bertan eta oso ondo dago: kurbekin, saltoekin...

Lehen esan duzu aita dela zure irakaslea eta meka-



Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



nikoa...

Bai, bere laguntza gabe, zaila izango zen. Txiki-txikitatik egon da nire ondoan eta lasterketetan, infantil kategorian nabilenez, norbait joan behar da beste motor baten nire aurretik, mendian igual galdu ahal naizelako eta aita dator beti.

Beste norbaitekin ikasi duzu?

Kurtso asko egin ditut. Esaterako, trialeko munduko txapelduna eta Espainiako *enduro*ko txapelduna den Sandra Gomezekin, Euskadiko txapelduna den Jon Idiakezekin, Jaume Betriúrekin... Espainiako Fede-

razioak egindako kurtsoetan parte hartzen dut eta lagun piloak egin ditut.

Mutilen kirola izan da betidanik. Neskak ere ari zarete...

Bai, baina oso gutxi. Aurreko asteburuko karreran, adibidez, neska bakarra nintzen nire kategorian, eta nagusiagoetan hiru ziren. Katalunian neska gehiagok lehiatzen dute, zirkuito itzelak daude eta motor munduan jende asko dabil.

Baserritik kanpo, non duzu entrenatzeko aukera, nora joaten zara?

Askok joaten naiz Errioxara eta Nafarroara, eta gertuen

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
 EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ANTXITXIKETAN AISIALDIA

- Diputazio kalea, 8 - 10, behea.

PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

☎ 943 576 124 🕒 10.00 - 13.30
 📞 747 453 607 🕒 15.30 - 19.30

📍 Antxitxiketan 📧 Info@antxitxiketan.com



dauden zirkuitoak Miranda de Ebro eta Langraitze-koak dira.

Lasterketa batzuk irabazitakoa zara ere, ezta?

Bai, Cross Country eta Enduro Outdoor-eko Nafarroako txapelduna naiz eta baita MTRkoa.

Ze arlo entrenatzen duzu bereziki?

Irteerak, oso inportanteak direlako. Lehen segundo horiek ondo egiten badituzu eta ibilbidean ez bazara jausten eta konstantea bazara, lasterketa ona egingo duzu. Gorputza ondo ipintzen jakin behar da ere, eta teknika izan: motorra frenatuta, baina aldi berean azeleratuta, gorantz egin ez dezan ahaleginduz.

Ze asmo duzu aurtengorako?

Espainiako Erduro txapelketako froga guztiak egitea. Korritu izan ditut soltean batzuk, baina txapelketa osatzen duten hirurak ez ditut sekula egin. Joan beharko naiz zirkuitu desberdinetara eta gogoia dut. Orain arte parte hartutako lasterketetan ikasi dudana probatu nahi dut, eta jarraitu ondo pasatzen.

Badago zirkuiturik bereziki gustukoa duzunik?

Villalobar de Rioja gustatzen zait piloa, oso polita da. Gainera zirkuituaren barruan zirkuitu desberdinak ditu: bata da moto-krosa handientzat, beste bat txiki-entzatzat, badago *enduro* bat ere, harriekin eta enborrekin... Burgosko Quintana Mariakoa ere oso polita da; hareazkoa du lurra eta terreno hori asko gustatzen zait.

“Irteeretan teknika handia behar da: motorra frenatuta, eta aldi berean azeleratuta izan behar duzu”

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia
Silvia
peluquería

688819336

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

KRABI
ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

“Motor batera igoitzeak askatasuna ematen dit, super-guai da!”

Etxekoentzako hau ahalegin handia da...

Bai, ez da tontokeria bat: gasolina, arropak, asteburuak etxetik kanpo... Denak asko balio du. Kristoren zortea dut dena den, ze motorren denda batek, Txarandakak, arropa ematen dit. Gainera motorreko gauzetan, erroberetan eta horrelakoetan merkeago egiten digu. Jabeak beti esaten du: “Juneri ez zaiola ezer falta!”.

Honetatik bizi ahalko zinateke?

Oso zaila da! Edo zara super-ona edo ezer ez!

Kirol hau egiteko zer behar da teknika, trebezia, ausardia...?

Teknika bai, baina ausardia ere bai. Badago jendea saiatu ere egiten ez dena, igual trialera, mendiko al-dapa zail bat igotzeko. Behintzat saiatu, ez?

Eta June Lópezek aipatutako hiru horietatik, zer du



gehiago?

Nik uste dut teknika. Eta ausardia, hori ere badaukat.

Zer ematen dizu motor batera igotzeak?

Ba askatasuna. Jo, super-guai da!



BATXILERGO AURREMATRIKULAK Martxoaren 27tik apirilaren 21era

Harremanetarako: [943 899 262](tel:943899262) telefonoa edo 013597aa@hezkuntza.net



Jardiñeta, 3 B -EIBAR-

“Ukrainan egoera jasangaitza da: uneoro daukazu hil zaitezkeen sentsazioa”

ALYONA PISMAK · Ukrainarra Mallabian



Duela hamar hilabete inguru irten zen Alyona Pismak Ukrainatik, eta horietako gehienak Mallabian eman ditu, bere bi semeekin, Artem eta Nikita, laster 17 eta 15 urte beteko dituztenak. Esker ona nagusi hemen jasotako laguntzagatik eta babesagatik, ezin ditu ahaztu gerra hotsen artean utzi dituen senide eta lagunak.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ / DORLETA VIDAL**

Zenbat denbora daramazu Mallabian?

2022ko maiatzean lortu nuen nire semeak Kievetik ateratzea, eta Europara eramatea: Poloniara lehen-dabizi, eta Espainiara gero. Nire ezaguna den Natashak eta bere alabak aldi baterako babesa jaso zuten aurretik, eta haiengana gerturatzea erabaki genuen. Poloniako errefuxiatuen gune batean, hainbat gestio egin genituen boluntarioekin, eta ni eta nire bi semeak hala nola beste familia batzuk ere, Espainiara ekarri gintuzten egun gutxiren buruan. Planik gabe abiatu ginen Espainiara, gudatik ihes egitea zen gure helburu bakarra. Bidaiazten ari ginen bitartean, Gurutze Gorriko boluntarioek ostatua prestatu ziguten Euskal Herrian. Mallabian, Rober eta Lorearen familiak hartu gintuen: udako etxe bat utzi ziguten, guztiz atonduta, eta oso eroso gaude bertan. Laguntza morala zein eko-

nomikoa eman ziguten: aldi baterako babesa lortzeko behar diren dokumentu guztiak batzen lagundu ziguten, laguntza medikoa eta materiala, besteak beste.

Asko daukazue eskertzeko?

Ezinezkoa da hitzekin azaltzea aurretik ezagutzen ez genituen pertsonekiko dugun esker oneko sentimendua. Gaur egun lagunak baino gehiago dira guretzat, eta espero dut egunen batean eskertu ahal izatea gure familia laguntzeko egin duten guztia.

Zeri kostatu zitzaizun gehien agur esatea?

Nire familiari. Gauza asko galdu ditugu, baina gogorrena senideetatik eta lagunetik urrun egotea da. Are gehiago berriro ikusiko dituzun ez dakizunean.

Hona heltzean, zer izan zen zailena zuretzat?

Egoera bera: Nora noa? Onartuko naute? Leku ezezaguna. Hizkuntza ezezaguna. Nola jarraitu bizitzen?



Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak
Pertsianak / Segurtasun pertsianak / Pertsiana dekoratiboak
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak

Tailerra:
 Zearreko Buelta 2
 943 17 66 34 - 630 01 13 41
 48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
 48260 Ermua (Bizkaia)
 943 17 98 60
 persianasorbe@gmail.com



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
 SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



Zer da gehien gustatu zaizuna?

Ez dut hitz egingo naturaren edertasunaz, ezta hirien berezitasunez. Euskal Herriko gauzarik garrantzitsuen jendea da: ukrainarreko hain jarrera beroa eta irekia Ukrainan bakarrik topatu daiteke, guztiok elkar ezagutzen dugulako eta laguntzeko prest gaudelako. Baina hemen ere hala da. Gustura eta lasai nago, lasai egon badaiteke zure sorlekuan guda bat dagoenean. Ukrainar asko militarizatu egin dituzte, eta armak erabiltzen erakutsi diete. Gizonezko eta emakumezko askok armak hartu behar izan dituzte beren jaioterria defendatzeko. Nire semeen aita bertan zegoenean, badakit zer nolako garrantzia zuen nire semeentzako haren ahotsa entzuteak noizbehinka, telefonoz. Ez daukat estatistikarik, baina ziur nago ukrainar askoz ere gehiago prest dagoela armak hartzeko behar izanez gero, Ukrainatik joan direnak barne.

Zure sorteria defendatzeko grinak bizirik jarraitzen du?

Nork defendatuko du bestela? Guri dagokigu. Eta eskertzen dut benetan beste herrialde batzuetako bizilagunek guri laguntzea, benetako laguntza ematen dutelako bide ezberdinetatik: zuzenean, diruarekin, ekintzekin, moralki. Laguntza morala oso garrantzitsua da guretzat eta, Espainian bereziki, jendea oso ulerkorra eta atsegina da. Familiakook eskerrak eman nahi dizkiegu laguntzen diguten guztiei: Roberri eta Loreari, haien etxean bizi baikara; Iñakiri, hemen instalatzen lagundu zigulako; eta Romani eta beste boluntario batzuei. Eskerrak eman nahi dizkiegu ere herriari eta gobernuari, haien adeitasunagatik eta gure egonaldiaren baldintzak errazteagatik. Eta erreberentzia egiten diegu bizitza zor diegunei: su-armak eskuan gure herrialdea defendatzen ari diren militar

“Nire senide askok Ukrainan jarraitzen dute, eta ez daukate ez urik ez elektrizitaterik”

“Ez dago errealitatea erakusten duen hedabiderik”

guztiei, alegia. Euren bizitzak arriskuan jarrita, gure bizitzak salbatzen ari dira.

Telebistan, Ukrainako berriak egunero. Nola sentitzen zara gerrako albisteak urrunetik ikustean?

Ez daukat hitz egokirik nire herrialdean dagoen gudak sortzen dizkidan sentimenduak deskribatzeko. Agian ama edo alaba jipoitzeak, edo semea hil dezaketela jakiteak sortzen duten antzerako sentimenduak izan daitezke. Ez dut uste merezi dutenik.

Komunikabideek gertatzen ari denaren ikuspegi erreala erakusten dute?

Ez. Ez dago errealitatea erakusten ari den hedabiderik. Zein da Ukrainan jarraitzen duten zure lagun eta senideen egoera?

Nire senide asko Ukrainan daude, Kieven eta beste hiri batzuetan. Askotan bonbak jaurtitzen dizkiete, ez daukate ez urik ez elektrizitaterik. Ezin dute ez euren tzako ez seme-alabentzako kozinatu, ezin dira behar bezala garbitu. Berogailurik gabeko etxeetan bizi dira, eta Ukrainan neguan 20 gradu zero azpitik egiten du. Edozein egunetan misil bat jausi daiteke zure etxean, edo zure senideen etxean. Uneoro daukazu hil zaitezkeen sentsazioa. Jasangaitza da.

Nola lagundu dezakegu hemendik?

Gu bizi izan garen bezala bizitzen. Lagundu dugun bezala laguntzen. Eta umeak ondo hezitzen. Gurasook ez daukagu beste aukerarik, erakutsi behar diegu guztiok garelako berdinak eta onak izan gaitzkeela. Besteengana errespetua izaten eta laguntzen ikasi behar dugu. Ez dugu gure artean borrokatu behar.

Zer eskatzen diozu etorkizunari?

Zer nahiko du ama batek, bada! Nire semeak gudan ez hiltzea! Inoren seme-alabak gudan ez hiltzea! Nire herrialdean dagoen guda bukatzea! Guda guztiak bukatzea! Ez dugu besterik behar.



MUSIKA
ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



Hainbat ekintza burutuko dira Elordi animatzeko helburuarekin

Aitor Elordi pilotari mallabitarrek Binakako Txapelketako finala jokatu du apirilaren 2an Iruñako Nafarroa Arena pilotalekuan. Hori dela-eta, Mallabiko pilota eskolak eta Udalak, herritarren laguntzarekin, hainbat ekintza prestatu dituzte egun horretarako: bazkari autogestionatua frontoian, pantailla erraldoia, umeentzako jolasak, afaria Herriko tabernan... Horrez gain, partidura joateko asmoa dutenentzako autobusa jarriko da Mallabitik. Duela aste gutxi ere, mallabitarrek euren babesa adierazi zioten Elordiri eta argazki erraldoia atera zuten, Elordiren kamiseta jantzita. Guztira, 116 kamiseta saldu zituzten, Rotekek enpresak serigrafiatuta.

Itsaso Praderari agurra egin zioten

Hamabost urte pasatxo eman ditu Itsaso Praderak Mallabiko frontoiko tabernaren eta kudeaketa orokorraren kargu. Utzi egingo du ardura hori eta egindako lana eskertzeko asmoz, agur sorpresa bat prestatu zioten lagun eta frontoiko erabiltzaile ugari. Xumea izan nahi zuena, jendetsu bilakatu zen eta sareen bitartez egindako deialdira ehundik gora lagun bildu ziren. Jubiletxe parean hasi zuten trikiti soinu lagundutako kalejira eta frontoian Itsaso harritu bat kantxa erdira atera zuten: aurreratu, bertso eta lore sortari laguntzen preziorik ez duen bertaratutako guztien txalo, epeltasun eta esker ona ere jaso zituen hunkituta palista ohiak. *Barrus* partida ere inprobisatu zen eta ohorezko satea omenduari eskaini zitzaion. Uzten duen lanpostua jada esleitua izan da: Koldo Zabala eta Pili Silva mallabitar bikotea arduratuko da bertako kudeaketaz.



Jose Antonio eta Karmele Gisasola EITBko saio bateko partaide

Harri herri izeneko saioan ikusi daitezke Zelai eta Zelai III aitalabak, eta zeregin desberdinak dituzte bertan: Jose Antonio bitaldetako kapitaina da eta Karmele, ostera, harri jasotzen aritzen da. Harri desberdinekin altxaldiak

egitea da saioaren muina, eta 28 harri-jasotzaile aritzen dira: 12 neska eta 16 mutil. Altxatu beharreko harriak pisu eta forma desberdinekoak dira: mutilek 200 kiloko koadroa, 137,5 kiloko kubikoa, 125eko kopa edo 100 kiloko bola jasotzeko

erronka dute; neskek 88 kiloko koadroa, 63 kiloko zilindro zaharra edo 50 kiloko bola dute aurrez-aurre. Kirolari bakoitzak harri bat jaso behar du, eta Karmeleri 88 kiloko koadroa egokitu zai. ETB1en, astelehenetan, 22:30ean.

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDATEGIA
MIGUEL
2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELETTAN
BIZKAIKO
TXAPELDUNAK
PROIEKTU 5 - 943170563
ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



Mikel González Durangoko Culturaleko futbol entrenatzaile berria da

Hirugarren mailan jokatzen duen Durangoko futbol taldeko entrenatzaile izendatu dute Mikel González, aurreko denboraldian Bergarako taldea eta lehenagotik Ermuko futbolariak entrenatzen aritutako ermuarra. Sallabente eskolako futbolari gisa hasi zen eta Ermua klubera pasatu zen gero, baina gaztetatik entrenatzea zen bere nahia eta jokalaria izateari utzi zion. Eskoletako taldeekin hasi zen, Ermua CDra pasatu zen gero eta denboraldi luzez egon da klubari lotuta, kategoria desberdinetako futbolariak entrenatzeaz gain, bost urtez lehen ekipoa zuzenduz. Iazko udan Culturalak deitu zion analista lanak egiteko eta, horretan zegoela, Beñat Etxebarria entrenatzaileak dimititu ostean, berari eskaini zioten haren kargua. Ilusioarekin oratu dio aukera honi, talde erdi profesional bat gidatzeak suposatzen dituen erronkei gogotsu begiraturaz.



Albokako Bandak Sorotan Belerekin joko du

1990ean sortutako Sorotan Bele talde hondarriarraren abestirik ezagunenekin kontzertu bat ari da prestatzen Alboka Musika Eskolaren Banda. Folk-pop estiloan eta musika zeltan oinarritzen zen taldeko partaide izandako Gorka Sarriegi abeslariak eta Urbil Artola gitarristak emanaldian parte hartuko dute, Xabier Zabalak musika-bandentzako egokitu dituen abesti sortarekin. *Sorotan Bele Gogoan* izenburupean, taldearen sorreraren 30. urteurrenaren harira, gorazarre egin nahi zaio haren ibilbideari eta, herriz herri kontzertuak eskainiz, herritarrek kantuan jarri. Hamahiru abesti joko dituzte, asko euskal kanten errepertorioan ereserki bihurtu direnak. Ikuskizuna Ermua Antzokian izango da, apirilaren 21ean 20:30ean, 10 euroren truke.

Ferretería
ANBOTO
Burdindegia

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSACARRIAK

ALFALDI
Correduría de Seguros, S.L.
ermua@alfaldi.com

INMOBILIARIA J.S.
www.inmojs.com
943 17 01 43
943 17 18 02

info@inmojs.com

Probaleku 8 · ERMUA



Haurreskolak

LEHEN URRATSA

ZERO URTEREKIN HASTEN DA BIDEA

*Familien behar eta erritmoetara egokitzen den
doako haur eskola*

IRAILERAKO
MATRIKULAZIO EPEA

Apirilaren 24tik
maiatzaren 16ra

Bulego-ordutegia:
13:00 - 14:30

BANAKAKO BISITAK

Eskatu zure hitzordua:

943176431 edo ermua.ermua@haurreskolak.eus
(16 astetik 2 urtera)

www.haurreskolak.eus



Euskadi, auzolana

ELUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Gimnasia Erritmikoko I. Txapelketa burutu zen kiroldegian

Eibar, Santurtzi, Azkoitia eta Ibarako gimnasia klub desberdinek antolatuta, Euskal Herriko gimnasia erritmikoko hogeita hamar klub batu zituen kirol diziplina horren Ermuko I. Txapelketak, otsailaren bukaeran burutu zena. Hirurehunik gorako neskek eta baita mutilek parte hartu zuten, erabili zuten aparailuaren arabera hiru multzotan banatuta: mazedoniar aritu ziren batzuk, uztaiekin besteak eta pilotekin hirugarrengok. Lehian parte hartutakoak 14 urtetik gorako amateurrek izan ziren arren, aurtengo ikasturtean sortu eta Ipurua talde eibartarrekin kinkulatutako Ermuko taldeko gimnasta txikiek erakustalditxoak egin zuten. Arduradunak pozik azaldu ziren jendearen harrerarekin, jasotako laguntzarekin eta emandako erraztasunengatik.



Arg.: Eta kitto.

Etxebizitza Sindikatuak salaketa kanpaina abiatu du

Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatuak martxan jarri du "Lanbideren kontrol burokratiko eta poliziala gelditzeko" dinamika. Sindikatuko kideen esanetan, Lanbide burutzen duen jardunarekin, laguntzak eskatzen dituztenek "demaseko biolentzia" jasaten dute. Horren aurrean, salaketa-kanpaina abiatu dute hiru helbururekin. Alde batetik, Lanbide burutzen ari den praktika bat salatzeke: Ertzaintza bidaltzea DBE-a jasotzen dutenen etxeetara, bertan bizi diren ikusteko. Bigarrenik, mota honetako dirulaguntzek ez dutela pobrezia ezabatzeko helburua salatzeke. Eta azkenik, abenduan onartu zen DBE-ren erreformak ez duela egoera aldatuko salatzeke.

Jon Albizu
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOAK

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOALKULARITZA ERMUA

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer

ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Haizeak harrotuta Debabarreanean

dkt

Debabarreko
Komunikazio
Taldea

Green Capital Energy enpresak Karakate-Irukurtzeta gainean parke eolikoa egiteko proiektua aurkeztu du, eta horrekin batera, orain dela 20 urteko mamuak berpiztu dira Elgoibarren eta Soraluzen. Baina horrez gain, Debabarreneko beste mendi batzuk ere parke eolikoak jartzeko leku optimo gisa izendatu dituzte, eta horrek guztiak haizeak harrotu ditu Debabarrenean. Orriotan aurkituko duzue Debabarrenerako parke eolikoei buruzko informazioa.



Eolikoetarako gune optimoak

SORALUZEN, EIBARREN, MENDARON, DEBAN, ITZIARREN ETA MUTRIKUN DAUDE

Eusko Jaurlaritza Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) ari da tramitatzen. Hasierako dokumentua idatzita eta ikusgai dago, Eusko Jaurlaritzaren euskadi.eus atarian.

Energien Plan Sektorialak zapi energia berriztagarri ditu aztergai: eguzki-energia fotovoltaikoa, eguzki-energia termikoa, energia eolikoa, energia ozeanikoa, biomasaren energia, energia geotermikoa eta energia mini-hidraulikoa. Besteak beste, energia mota horiek sortzeko eta lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eremu optimoak markatzen ditu eta a proposak ez diren eremuak baztertu.

Plan Sektorialaren tramitazio prozesuan erakundeek, elkarteek, eragileek... zuzenketak zein proposamenak egin dituzte, beraz, litekeena da aldaketak izatea behin betiko LPS-ak. Eusko Jaurlaritzak udarako nahi du onartu Energia Berriztagarrien LPSa eta behin betiko plana hura izango da.

%21etik %16,1 eolikoetatik

Eusko Jaurlaritzaren hasierako LPSaren arabera, 2030erako, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian kontsumitzen den energiaren %21 iturri berriztagarrietatik sortzea

lortu nahi dute, %16 bertan sortuta eta %5 kanpotik ekarrita.

Bertan sortutako energia berriztagarriari dagokionez, berriz, energia eolikoaren aldeko apustua egiten du Jaurlaritzak. Gaur egun, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, 153 MW produzitzen dira dorre eoliko bidez eta helburua da 783 MW produzitzea. Hau da, zazpi aldiz biderkatzen du zentral eoliko bidez ekoitzi nahi den energia berriztagarri kopurua.

Zuzenean aplikatzekoak

Hori ahalbidetu eta bultzatzeko, Energia Berriztagarrien LPSaren aurrerapenak honakoa dio: "Haize-aprobetxamenduari lotutako eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak 1. mailako eremu optimo garbiak eta 2. mailako eremu optimo garbiak izenekoetan ezartzea erabilera edo jarduera onargarri-

**Berriztagarrien
LPSaren aurrerapenak
zortzi gune optimo
bereizi ditu
Debabarrenean**

tzat jotzen da, Lurralde Plan Sektorial hau indarrean sartzen denetik zuzenean aplikatzekoa, eta ez da beharrezkoa izango inolako hirigintza-plangintzaren bidez garatzea, lurzorua sailkapena eta kalifikazioa edozein izanik ere; hala ere, aplikagarri den sektore-araudiaren arabera, beharrezkoak diren gainerako baimeak, lizentziak eta onarpenak beharko dira".

Gune optimoei dagokienez, lehen mailakoak dira urtean 3.350 orduz funtzionatzeko ahalmena izango luketen lekuak; bigarren mailakoetan, berriz, urtean 2.650 ordu baino gehiagoan egon ahalko lirarteke martxan dorre eolikoak.

Debabarrenean, zortzi

LPSak, 33 eremutan, 139 lerrokada bereizi ditu zentral eolikoak egiteko gune optimo modura. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 33 esparru horietatik zortzi Debabarrenean daude, guztiak ere mendietan.

Soraluze-Elgoibar

Debabarrenean, oraingoz, zentral eoliko bat eraikitzeko eskaera bakarra dago aurkeztuta. Green Capital enpresak (Capital Energy multinazionala) aurkeztu zuen

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Erredakzioa: Ainhua Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

Diseinua eta maketazioa: Ekhi Belar

Azaleko irudia: Pexels

Tirada: 18.425 ale

dkt
Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



Karakate. Argazkia: Egoitz Unamuno.

egitasmoa Soraluzeko zein Elgoibarko udaletan, 2022ko otsailean.

Aurreproiektuaren arabera, bi aerosorgailu ezarriko lituzkete Karakatek Gizaburuagara bitartean. Dorre bakoitza 101 metro altu izango litzateke eta barruan, eskaierak, igogailua eta plataformak izango lituzke. Hegal bakoitza, berriz, 77 metro luze izango litzateke. Beraz, hegal eta guzti, aerosorgailu bakoitzak 180 metro inguruko garaiera izango luke.

Konparatze aldera, dorreak Soraluzeko elizdorrearen garaieraren halako lau neurtuko luke, Elgoibarko Mintxeta kirolgunea baino luzeagoa izango litzateke edo Bilboko Iberdrola dorrea baino handiagoa (165 metro ditu hark).

Dorreen oinarriek, berriz, 26 metroko diametroa izango luke eta hiru metroko sakonera, lurpean. Potentziari dagokionez, aerosorgailu bakoitzak, bataz beste, 4.800 kw-eko potentzia sortuko luke.

Elgoibarko azpiestaziora

Aurreproiektuan zehazten dutenez, zentralak sortzen duen energia Elgoibarko azpiestazio elektrikorako eroango lukete, Azkueko zentralera (jabea Iberdrola da), handik sare orokorrera konektatzeko. Energia, lurpean sartutako kableen bitartez bideratuko

lukete Elgoibarko azpiestaziora, 4,79 kilometroko ibilbidean zehar.

Proiektuak, guztira, 10.762.915 euroko aurrekontua izango luke.

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Jasangarritasunerako Departamenduak abuztuaren 2an jarri zuen ikusgai Green Capital Development 135 SLU enpresak Karakateko parke eolikoa eraikitzeko aurkeztu duen hasierako ingurumen txostena.

"Uztargarria eta moderatua"

Bertan, enpresak zehazten du bere ikuspuntutik proiektuak zer nolako inpaktua eragingo lukeen ingurumenean eta inpaktu hori minimizatzeko zein neurri hartuko lituzkeen. Enpresaren iritzi, proiektuak ingurumenean izango lukeen eragina "uztargarria eta moderatua" izango litzateke eta ondorioz, ez du ikusten arrazoirik proiektua geldiarazteko.

Ingurumen txostena argitaratu arte, Green Capitalek ezagutarazi gabe zituen proiektuaren gaineko hainbat informazio; esaterako, ingurumen txostenean argitu zuen nola pentsatzen dituzten garraiatzea zentral eolikoa



Jaungoikomendi. Argazkia: Xangarin (mendiak.eus)



Kalamua mendian Markina-Xemeini dagokion gunea ezarri dute eolikoak jartzeko gune optimo bezala. Argazkia: Ekhi Belar.

eraikitzeke pieza erraldoiak: Elosutik garraiatuko lituzkete, horretarako, mendi gainean zehar 5 metro zabal eta 8 kilometro pasatxo lituzkeen errepidea eraikiz, aerosorgailuak ezarriko lituzketen kokalekuraino. Horrekin batera, aurreproiektuan aipatzen ez zuen "dorre meteorologikoa" eraikitzeke asmoa ere azaltzen da ingurumen txostenean. Hirugarren dorre hori 101 metro garai izango litzateke eta txostenean diotenez, eraikitzeke, "gutxienez" 520 m²-ko plataforma eraiki behar-ko lukete. Bestalde, txostenak dorre eolikoak muntatzeko era-

biltzea aurreikusten duten espazioa ere zehaztu zuen: 3.000 m².

Egitasmoaren prozedurari dagokionez, berriz, Green Capitaletik esan dute espedientea tramitatzen segitzen dutela eta zaila dela behin betiko proiektuaren gaineko data zehatzik ematea.

Beste kokagune bat

Zentral eoliko bat eraikitzeke egitasmoa aurkeztuta izan arren, Eusko Jaurlaritzaren LPSaren aurrerapenaren arabera, Soraluze-Bergara inguruan, eremu bakarra dago kontsideratuta aerosorgai-

luak jartzeko eremu optimo modura: Txurruka gaineko Koskorreta-Ozeta Irukurutzetatik Osintxu aldera jaisten den hegi handian dago kokatuta esparrua, Soraluze Atsedentxaboleta esparru inguru modura ezaguna den gunea. 625 bat metroko esparrua.

Karakate-Irukurtzeta lerrokadura, berriz, gune baztertu modura azaltzen da LPSaren aurreapenean, baina aldi berean, lerrokadura hori ez da osorik baztertzen.

Eibarren, bi

Bestalde, Soraluze ez ezik, berriztagarrien LPSak eolikotarako beste zazpi kokagune optimo bereizi ditu Debabarrenean, bigarren mailako gune optimoak, guztiak ere.

Horietako bi Eibarren edo Eibar inguruan daude: bata, Akondian (Arrikurutz) eta bestea, Markina-Xemeinekin muga egiten duen Kalamua mendian. Bien artean, kilometro eta erdiko luzera hartuko lukete.

Mendaro-Deba-Itziar, gehien

Itziar-Deba-Mendaro eremuan daude, berriz, gune optimo kopururik handienak identifikatuta, bost: Urkamendi-Arriolak (Itziar, Deba), Otaerre-Larraskanda (Deba, Mendaro, Azkoitia, Izarraitzen); Otaerre (Txoriskita)-Elordi-Urkullu (Mendaro, Deba, Izarraitzen) eta Andutz-Txobillar (Itziar, Deba). Guztira, lau kilometro pasa.

Mutrikun, sei gune lerratuta

Azkenik, Mutrikun beste lerrokada bat markatu dute gune optimo modura. Ez da lerrokada jarraia, baizik eta guztira, lau kilometro pasako luzera hartuko luketen sei gune daude markatuta; bat izan ezik gainerako guztiak Jaungoikomendi eremuan daude kokatuta.

Eragile politikoaren iritzia

ZER IRUDITZEN ZAIZUE DEBABARRENEAN PARKE EOLIKOAK JARTZEA?

Ordezkeri politikoek zeresana izango dute Energia Berriztagarri-en Lurralde Plan Sektorialaren tramitazioan eta, horregatik, gaur egun Debabarrenean ordezkariak duten alderdi, plataforma edota eragileekin egon nahi izan dugu gaiaren gainean euren iritzia zein den jakiteko. PP alderdiaren kasuan, ostera, Ermuako PP-ren izenean erantzun diote geure galderari.



Krisi energetiko batean murgilduta gaude. Erregai fosiletan errotutako gure energia-sistemaren ondorioz pairatzen ari garen klima-aldaketa areagotzen ari da.

Arazo honi aurre egiteko, tresna nagusia trantsizio energetikoa da, hau da, erregai fosiletan errotutako sistema energetiko bate-

tik emisio gutxiko edo karbono-emisiorik gabeko batera aldatzea, iturri berriztagarrietan oinarrituta.

Denok bat gatoz energia berriztagarrien aldeko apustua egin behar dela, baina modu zuhur, kontrolatu eta antolatuan, horrek ez baitu esan nahi horren kostua hutsa denik. Energia eolikoa batzuentzat elektrizitatea sortzeko modurik garbiena, berriztagarria eta kutsadurarik gabekoa bada ere, ezin dugu ahaztu ingurumenean eta biodibertsitatean duen eragin ezkorra.

Horregatik guztiagatik, gure eskualdean parke eoliko bat jartzeko aukeraren aurrean, ezer baino lehen, azterketa zorrotz bat egin beharko genuke, irizpide teknikoak, ingurumenekoak, sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta.

Baina ez dezagun ahaztu planetaren etorkizuna gure eskudagoela, eta, beraz, has gaitezen kontsumo-ohiturak aldatzen: energia-kontsumoa murriztuz, kontsumo iraunkorragoa sustatuz eta ditugun baliabideak modu eraginkorrean erabiliz.

ehbildu

Garrantzitsua da parke eolikoaren eraginaz hitz egin aurretik larrialdi klimatikoaz eta energiaren krisiaz hitz egitea. Alde batetik, erregai fosilekiko dugun menpekotasuna dago, eta bestetik, honek larrialdi klimatikoan duen eragina. Beraz, ezinbestekoa da erabat lotuta dauden bi gaiak heletzea eta Euskal Herrian ere trantsizio ener-

getikoa lehentasunez hartzea. Horretarako, behar dugun energia kontsumoa zehaztuko duen eta hau lortzeko oinarriak jarriko dituen Energia Estrategia diseinatu behar da. Beraz, Lurralde planifikazioak eskutik behar du energia berriztagarrietan oinarritutako planifikazio energetiko bat. Energia berriztagarrien hedapen ordenatu baterako planifikazioa da behar duguna, eta hau da LPS berriak duen gabezia nagusia. Gure ustez, autosufizientzia ahalik eta eskalarik txikienetan bilatu behar da, eta horlortu ezin dena goragoko eskaletan

bilatu, beti maila lokaleko autosufizientzia osatzeko helburuarekin. Eta betiere aintzat hartuz arrazoi ezberdinengatik salbuetsi eta babestu beharreko eremuak. Trantsizio energetikoak interes publikoari erantzun behar dio, eta gure ustez, ezinbestez aipatutako baldintzei. Beraz, parke eolikoaren beharra eta kokapenaz hitz egin aurretik, ezinbestekoa da Euskal Herrian dugun Energia beharra aztertzea eta honi bide emateko herritarrekin batera prozesu sakonak egitea, herritarren oniritzia ezinbestekoa delako estrategia honetan.



LPS batek, izan orain arte indarrean dagoen eolikoena edo lantzen ari den berriztagarrienak, berriztagarri hori non ezin den garatu uzten du garbien; eta, garatzekotan, garatzeko balizko lekuak zehazten ditu. Planak aipatzen du balizko eremu horiek zehaztasun gehiagoz lantzen dituela eremu bakoitzera-ko proiektua egiten denean. Proiek-

tuak berak zehaztatuko ditu hai-zerrotak non jarriko diren eta proiektuak lurri sortuko dizkion murrizketak. Indarrean dagoen Planaren barruan planteatzen diren parke batzuk bertan behera gertatzen ari direla ikusten ari gara, ingurumen edo arategiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzea ezinezkoa gertatzen zaielako edo garapena bideragarria ez delako. Energia berriztagarriak ezinbestekotzat jotzen baditugu eta trantsizio energetikoa egin behar bada, erabakiak hartu eta neurriak ezarri behar dira, ahalik inpaktu-txi-

kiena sortuko duten berriztagarriak bultzatzeko. Ezin dugu berriztagarrien alde egon eta proiektuak zehaztasunez ezagutu gabe, alar-ma sortzen hasi edo aurka jarri. Gure industriak ezinbestekoa du aztarnarik gabeko energia ekoiztea. Eta gure ongizatea industrian oinarrituta dago. Horrek ezinbestean berriztagarriak jartzera eraman behar gaitu. Gainontzean, berriztagarria bada ere, kanpotik ekarri beharko dugu, kanpokoek ezartzen diguten prezioan. Burujabetza bada gure helburua, energian ere, gure energia ekoizten hasi behar dugu.

Itziarko Auzo Udala

Talde eragilea

Azkenaldian bizi dugun energia-krisiak areagotu egin du tokiko energia berriztagarriekiko interesa, trantsizio energetikoa gauzatzeko premia agerian utzi baitu. Baina trantsizio hori egiteko modu asko daude. Trantsizioa jasagarria izateko, plangintza beharrezkoa da, eta horretarako LPS-a tresna baliagarria izango da. Aurrerapen Doku-

mentuan, zentral eolikoak egiteko eremu egokien artean, Irureko Haitzetik Andutz tontor aldera eta Urkamenditik Arriola bitarteko kokapenak ageri dira. Geoparkea, Biotopoa, Izarraitzeko babesgunea... Balio handiko ingurua dugu, eta eraikuntza hauek sortuko luketen atzera bueltarik gabeko txikizioak kezka sortzen du. Industrialdea bertan izanik, energia-iturri berriztagarriak ustiatzeko hau bezalako eremu antropizatuak lehenetsi beharko liritekeela uste dugu, lur gehiago artifisializatu ordez. Kokapenaren eztabaidaz harago, tran-

tsizio energetikoa aldaketa sakonagoen eskutik etorri beharko luke. Emakumeen Eguneko aldarrietako bat zaintzak erdigunean kokatzea izan da. Energiak badu garrantzia zaintza horretan, eta negozio gisa kudeatzetik eskubide gisa kudeatza-za pasatu beharra dago, herritara ahaldundu eta energiaren jabetza berreskuratuz. Energiak herritarren benetako beharrei erantzun behar die, hazkunderaren logika alde batera utzita. Energiaren erronkak aldaketa sozioekonomiko sakonak eskatzen ditu, benetan zaintza erdigunean jarri nahi bada.



Galdera batekin hasiko gara. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko gizarte bezala, herritar bezala, zerbait ipintzeko prest al gaude? Erantzun bakarra teknologia eta natura suntsitzean oinarrituko al dugu? Debabarrenean Natura 2000 sareko naturgune babestuak eta SARE BERDEA osatzen duten ekosistemak eta galtzeko arriskuan

eta egoera zaugarrian dauden hainbat espezie dauzkagu. Bi markada baino gehiago daramatzagu lurraldea aktibo finantzario gisa erabiltzen. Hortik dator administrazioaren desarautzea eta esku-hartze falta. Azken 50 urteetan zientzialariek behin eta berriro azaldu digute etengabeko hazkundera ezinezkoa dela mugak dauzkan planeta batean. Argi eta garbi jakin behar dugu mendi guzti-guztiak parke eolikoz eta zelai guztiak eguzki-panelekin beteko bagenu ere, ezingo genukeela gaur egungo energia kontsumoa mantendu.

Askoz energia gutxiago kontsumitzen ez badugu, ordezkapen hau ez da iritsiko. Nolabaiteko arrazionaltasun eta errealismoak gidatu beharko gintuzkeela uste dugu. Izan ere, hori da, eta besterik ez, berriztagarrien makroproiektuen aurkako mugimenduek eskatzen dutena: demokrazia eta subiranotasun energetikoa. Hau da, zer energia mota, zenbat eta zertarako erabakitzeko gaitasuna. Bizitza eta ekonomia birkokatzea izan daiteke irtenbidea, tokiko energia eta materialekin tokiko beharrak ase ahal izatea.



Ezin da okerrago egin. Otarre eta Atxurigain bezalako mendieta-rako proiektuak planteatzeak -kontuan izanik Izarraitz mendigunean kokatuta daudela eta urak Kilimon ibaiaren akuiferora (Mendaro) drainatzen dituztela-, erabateko ezjakintasuna eta zentzugabekeria erakusten ditu. Proiektu horiek lurpeko eremua-

ri eragingo lioketen kutsadura ondo dokumentatuta dago. Elgoibar, Deba, Itziar, Mendaro eta Mutrikuko urak elikatzen diren akuiferoa babesteak beste interes batzuen gainera egon beharko luke. Beste proiektu batzuek, hala nola Kalamuakoak eta Karakatekoak, amorrarazi egin ditu herri-tarrak, mendi horiek gordetzen dituzten ondare-balioak hondatzearen aurka daudelako. Karakateren kasuan, Elgoibarko eta Sorluzeko udalek ezezko irmoa adierazi dute, baina proiektuak aurrera jarraitzen du, bi udalek

onartu dituzten Babes Planak gorabehera. Eusko Jaurlaritzak ez ditu berriztagarriak bultzatu, 40 urtean gasaren eta fracking-aren aldeko apustua egiten jardun delako soilik, eta orain gasaren eta petrolioaren lehengo oligopolio energetikoaren eskutik doa, energia berriztagarrien oligopolio berri gisa posizionatzeko, proiektuak esleitzuz, ingurumenean edo gizartearen suminean duten eragina gorabehera, eta udalen aurrean eta herritarren interesen aurka inposatuz. Ez, gauzak ez dira horrela egin behar.



Gipuzkoak kanpoarekiko mende-kotasun energetiko handia du (%90) eta energia berriztagarrien presentzia ez da % 8ra ere iristen. Datu horiek kontuan hartu behar ditugu erabakiak hartzerakoan, mende-kotasun energetiko handia gure eta eskualdeko enpresen kostuen igoeraren eta lehiakortasun-galeraren arrazoi bat baita, eta baita

gure herritarren erosteko ahalmena galtzearen arrazoi bat ere. Lurraldeko udalari eta eskualde guztien trantsizio energetikoa bizkortzeko garaia da, udal askotan komunitate energetikoekin egiten ari garen bezala, baina ez da nahikoa kanpoarekiko daukagun mende-kotasuna gainditzeko. Energia berriztagarrien behin betiko bultzada eraginkorrean lan egin behar dugu, eta hor energia eolikoak eta parke eolikoak aliatu izan behar dute gure lurraldean. PSEk trantsizio energetiko berde baten aldeko apustu egiten du, baina justua eta

soziala izan behar da, eta garatzen diren berriztagarrien proiektu guztiek osagai sozial hori izan dezaten lan egiten dugu. PSEk garrantzitsutzat jotzen du proiektu eolikoak gauzatzeko hauek ahalik eta zorroztasun tekniko handienarekin egitea, eta, hala, ingurumen-balioei lehentasuna ematea, proiektu guztien ingurumen-inpaktuak modu metatuan eta sinergikoan aztertuz. Horretarako, oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzak, energia berriztagarrien LAParen onarpena azkartzea. Plan horrek denbora gehiegi darama izapidetzen.



Kultura-, natura- eta paisaia-interes handiko eremu baten inguruan hitz egiten ari gara. Baina, aldi berean, energia merkeago eta garbiagoak nahi ditugu. Dikotomia honen aurrean, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala onartzea izango litzateke logikoa, eta hori Eusko Jaurlaritzari dagokio | Ermuko PP

"Egin behar den lehenengo gauza energia kontsumoa jaistera da"

IÑIGO ANSOLA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

Iñigo Ansola Kareaga (Markina-Xemein, 1974) Euskal Energia Erakundeko (EEE) zuzendaria da. Azpimarratu du energia berriztagarriak lortzeko mota guztietako proiektuak beharko direla eta egin beharreko lehen gauza energia kontsumoa jaistera dela.

Zein da egungo egoera?

Dependentzia handia dugu. Kanpotik ekartzen dugu kontsumitzen dugun energiaren %90 eta %10 guk sortzen dugu. Hemen sortutako horretatik %62 biomasa da, %21,7 bioerregaia, %4,9 eolikia, %5,4 hidroelektrikoa eta %5,8 eguzki energia (2020 datuak dira).

Zer lortu nahi da?

2030erako kontsumitzen dugun energiaren %21 izatea berriztagarria, izan guk produzitutakoa (%16) zein kanpotik ekarritakoa (%5). Gaur egun, kontsumitzen dugunaren ia %17 iturri berriztagarrietatik sortutako energia da, inportatzen ere ari garelako berriztagarrietatik sortutako energia. %21 lortzeko, gure plan estrategikoan azaltzen da, adibidez, 783 MW jarriko dugula sektore eolikoan bitartez; gaur egun, 153 MW daude martxan. Euskadin oso energia kontsumitzaile handiak gara. Energia asko kontsumitzen

dugunez, kontsumoaren mix hori berriztagarrien aldera ehuneko bakarra aldatzeko ere, sekulako ahalegina egin behar dugu. Ez da gauza bera Extremadurako mix energetikoa aldatzea edo Euskadikoa. Gero dator hurrengo eztabaida: energia berriztagarri asko sortu behar dugu. Baina, zelan eta non?

Hori da, zelan eta non?

Ondo dago plaka fotovoltaikoekin auto-kontsumorako proiektuak sartzeara eta horretarako dirulaguntza asko banatzen ditugu; baina horrek ez du asetzen dugun premia guztia. Plakak beren teilatuetan jarrita ere, portzentaje bat lortuko dute industriek, baina ez behar duten beste. Tamaina guztietako proiektuak behar ditugu: txikiak, ertainak, bai eta handiak ere, energia asko sortuko dutenak.

Plaka fotovoltaikoek lur eremu handiak behar dituzte. Eta eolikoak haizeak jotzen duen lekuan jarri

behar dira; gure erkidegoan, mendi tontorretan, mendi gailurretan, dago haizea. Proiektu hauek inbertsio ekonomiko handia egitea eskatzen dute, eta gutxieneko bat zaindu behar da, haizeari dagokionez. Horregatik dago interesa, baita ere, itsasoan jartzeko, han mendietan baino baliabide egokiagoak daudelako argindarra sortzeko. Baina gure itsasoak erronka zailago batzuk planteatzen ditu: plataforma kontinental sakonak ditu eta azpiegiturak flotanteak izan behar dira, baina gure itsasoak, neguan, badaki olatu ikaragarriak sortzen; gainera itsasokoa ur gazia da, eta horrek konponenteak ugertu egiten ditu. Baina hor dago baliabide oso garrantzitsua eta enpresa pribatuak sekulako apustua egiten ari dira.

Energia Berriztagarrien LPSaren aurrerapenean, zortzi gune optimo markatu dira Debabarrenean eolikoetarako. Zer lortu nahi da horrekin?

Legeak zein gunearen ezaugarriak kontuan hartuta, ikusten dira zeintzuk diren gunerik onenak parke eolikoak jartzeko. Beste kontu bat da gero enpresek gune horiek interesgarriak ikusten dituzten edo ez. Aldagai desberdinak aztertu beharko dituzte. Adibidez, izan

"783 MW jarriko dugu sektore eolikoan bitartez, gaur egun 153 MW daude martxan"



Iñigo Ansola Kareaga. Argazkia: EEE.

daiteke gune bat oso egokia haize aldetik, baina konexioa 25 kilometrora izatea eta horrek ez egitea hain aproposa izatea. Normala den moduan, edozein parke negozio plan bat izan behar du atzetik, burutzen diren inbertsioak oso handiak direlako eta proiektu horiei etekina atera behar zaielako. Beraz, gerta daiteke LPSan egokitzat jotzen den eremu batera inor ez joatea proiektu batekin, ez delako interesgarri ikusten.

Alemanian, adibidez, autobide batzuk plaka fotovoltaikoz estalita daude. Hau da, gune degradatuak erabili dituzte energia produzitzeko. Halakoak hemen ezin dira egin?

Denak beharko ditugu. Argi eta garbi. Aztertzen ari dira, adibidez, harrobietan eguzki energia aprobeitza daitekeen, bide

bazterretako zortasun -bideak erabiltzea, urtegietan eguzki-plaka flotanteak jartzea... Ideia asko daude. Dena da aztertzea proiektuek zenbat argindar sor dezaketen, inbertsioak nolabaiteko itzulera izango duen ikusteko. Guztiek dute inpaktua, eta aztertu egin behar dira.

Hemen eta han, kontrako jarrera handiak ikusten ari gara zenbait proiektukiko. Zelan baloratzen duzue hori?

"Herritarrok proiektu horiek geureganatu eta geure sentitu behar ditugu"

Ulegarria da. Argi dago parke eolikoek zein fotovoltaikoek ingurumenarekiko inpaktua dutela. Egin behar dena da parke horiek indarrean dagoen legedia, ingurumen baldintzak eta beste era batekoak betetzen dituztela bermatu. Bermatzen baldin bada hori, zalantzarik gabe, aurrera, energia ikuspegitik oso premiazkoak ditugulako. Erronka bat ere badugu: herritarrok proiektu horiek geureganatu egin behar ditugu eta geure sentitu. Gaurko teknologiak laguntzen du geureganatzeko modu desberdinak sortzen: sortzen den argindarrarekiko onuradunak izanda edo parke horretan geure jabetasuna izateko aukera izanda.

Ez da aztertu energia kontsumoa jaitsi beharra?

Egin behar den lehenengo gauza da hori: energia kontsumoa txikitzea. Zenbat eta energia gutxiago kontsumitu, orduan eta errazagoa izango da iturri berriztagarrietatik lortzea. Energia mailan politikarik eraginkorrena izango da eraginkortasun energetikoa. Produktu bat lortu energia gutxiago erabiltzen edo gure etxea berotu energia gutxiago erabiltzen. Horretara diru asko dugu zuzenduta, geroz eta energia gutxiago kontsumi dezagun etxeetan, industrian, zerbitzuetan, eta zer esanik ez, batetik bestera mugitzeko.

"Argi dugu herritarren gehiengoak ez duela proiektu hau nahi"

KARAKATE BIZIRIK PLATAFORMA

Orain dela 20 urte entzun ziren estreinakoz Karakaten parke eolikoa eraikitzeko aukerak aztertzen ari zirela, eta orduan sortu ziren Elgoibarko eta Soroluzeko Karakate Bizirik plataformak, Karakate babesteko helburuarekin. 2022ko urte hasieran aktibatu zituzten berriro bi taldeak, Green Capital Energy enpresak Karakaten parke eolikoa eraikitzeko proiektua aurkeztu zuenean. Herritarrak informatu eta hainbat ekintza egin dituzte, Karakate bizirik nahi dutelako.

Karakate gainean egin nahi duten parke eolikoaren kontra bildu zarete. Zeintzuk dira proiektuaren kontra egiteko ikusi dituzuen arrazoi nagusiak?

Karakate ingurua bere osotasunean babestea da gure helburua. Izan ere, bizi garen zonalde industrializatu honetan, mendiak dira gure arnagune bakarrak. Karakate mendi berezia da gainera inguruko herritarrontzat, dugun lotura afektiboaz gain inguruak dituen balio askotari-koengatik: geologia, ekologia, arkeologia, paisaia zein aisiaren ikuspegitik babestu beharreko eremua dela uste dugu.

Duela 20 urte egon zen Karakaten parke eolikoa egiteko beste saiakera bat, eta orduan atzera bota zuten. Zelan ikusten duzue bigarren saiakera hau?

Asko arduratu gaitu proiektua berrartzeak. 1998an izan zen lehen saiakera, eta herritarrok gelditzea lortu genuen orduan.

Orain, eskualdeko mendietan hainbat proiektu aurrera eramateko arriskua dago. Karakatez gain, Kalamua, Akondia, Txurruka gaineko Koskorreta-Ozeta, Andutz-Txobillar, Otarre-Larraskanda, Juangoikomendi, Urkamendi-Arriola ere kokagune egokitzat aurreikusten dira. Beraz, aukera hau baliatu nahi dugu, eskualdeko gainontzeko herrietan gaiarekin kezka duten biztanleak gugana gerturatu daitezten gonbitea egiteko.

Zein puntutan ikusten duzue une honetan Green Capital en-

"1998an izan zen lehen saiakera, eta herritarrok gelditzea lortu genuen orduan"

presak Karakaten jarri nahi duen parke eolikoaren proiektua?

Proiektu definitiboa egon ez arren, gure mendien kontrako faktore asko ditugu, besteak beste, Europako, Madrilgo eta Gasteizko Gobernuak mega proiektuak garatzeko onartzen ari diren erraztasunengatik. Urte askoan administrazioak ezer egin gabe egon dira eta orain dena korrika egiteko beharra dute, Europak ezarritako berriztagarrien ekoizpen kopuruetara iristeko, eta inolako egiturazko plangintzarik gabe dabilta. Ondorioz, enpresa pribatuak dira proiektuak txanpinoi moduan planteatzen ari direnak. Karakateko asmoari dagokionez, Proiektua eta Ingurumen-Inpaktuaren azterketa publikoa egiteko zain gaude, eta hauteskunderen ondoren publiko egingo duten susmoa dugu.

Karakate-Hirukurutzea gaina arkeologikoki babestutako ingurunea da, baina proiektu hau



Karakate Bizirik plataformako hainbat kide.

atzera botatzeko adinako babesik ba al dauka?

Green Capital enpresak Hastapeneko Ingurumen inaktuaren txostena aurkeztu zuen abuztuan. Bi herrietako plataformek, mendi taldeen laguntzarekin, eta baita Bergara, Soralue eta Elgoibarko udalek ere ekarpenak egin genizkion txosten horri. Guretzak badu babes nahikoa, aurreko saiakeran ere Babes Arkeologikoagatik bota zutelako proiektua atzera, baina argi dugu, nahi badute egingo dutela, interes ekonomiko handiak daudelako tartean eta Administrazioa alfondra gorria jartzen ari delako Energiaren Lobbyei. Aurre egiten aurkituko gaituzte.

Elgoibarko eta Soraluezko udalak proiektuaren kontra posizionatu dira. Horrek lagundu dezake proiektua atzera botatzen?

Proiektuaren aurkako eta Karakate babestearen aldeko posi-

zionamendu oro da positiboa, zer esanik ez herritarron ordezkari diren erakundeek aho batez egiten badute. Baina badakigu azken erabakia ez dela udalena, hau da, proiektua geratzea ez dagoela erabat udalen esku. Hala ere, gutxienez herrien posizioa argi lagatzeko balio du, hemen kontratasun eta kezka bat dagoela erakusteko. Aldi berean, antolatu ditugun ekimenetan parte hartu izana eskertzea nahiko genieke herritarrei (Mendi Martxa, jende katea, hitzaldiak, 2.026 sinadura Elgoibarren...). Argi dugu, herritarren gehiengoak ez duela proiektu hau nahi.

Karakaten ez dituzue eolikoak nahi, baina ez zarete energia eolikoaren kontra agertu. Eolikoak zein baldintzatan onartuko zenituzkete?

Eolikoaren ezarpenak plangintza bati jarraitu beharko lioke, lurraldearen behar eta aukeren analisi arrazional batetatik abia-

"Megaproiektuak baino, proiektu herrikoia goak bultzatu behar dira"

tuta, eta ez inprobisazioaren emaitza izan. Azken honeraman du txanpinoiak bezala zentralak bata bestearen atzetik proiektatzera. Plan sektorial horrek aspaldi behar zuen osatua, baina momentuz zirriborroa baino ez da egin publiko. Behin betiko plana osatu arte, herritarren parte-hartze ezinbestekoarekin, planteaturiko proiektuei baimeunik ez litzaiekeela eman beharko iruditzen zaigu, adibidez moratoria bat ezarriz. Eolikoak ezartzeko baldintzetan ez gara adituak, baina iruditzen zaigu zenbait irizpide batzuk kontuan hartu beharko lirakeela: inguru antropizatuei lehentasuna eman (harrobiak, industrialdeak...), nekazaritza eta abeltzantzarako balio altuko eremuak eta naturguneak babestu... Kapitalaren akumulaziorako diren megaproiektuak beharrean eskala txikiagoko proiektu herrikoia goak bultzatu behar direla uste dugu.

Egungo kontsumo ohitura eta kopuruari begira, zein alternatiba proposatzen duzue?

Gure taldeak ez ziren sortu alternatibak plazaratzeko, Karakate babesteko baizik. Hala ere, herritarrak informatzeko hitzaldiak antolatzen gabiltza, praktikan dauden eredu eta alternatiba ezberdinen berri emanez. Izan ere, Lobbyen interesen gainetik alternatibak egon badaude.

"Trantsizio ekosozialak energia berriztagarrien inplementazio azkarra behar du"

ALAITZ AJURIAGERRA JAUZI EKOSOZIALA

Urte hasieran Jauzi Ekosoziala dinamika aurkeztu zuten, iaz egin ziren Ekotopaketetatik abiatutako ekimena. Alaitz Ajuriagerra eibartarra da dinamika horretako kideetako bat.

Nolako egitasmoa izan zen Ekotopaketak? Zergatik eman duzue pauso hau?

Ekotopaketak krisi ekosoziala eztabaidatzeko eta gaia jorrazteko helburuarekin antolatu genituen, askok mugimendu ekologista artikulatzeko eta indartzeko beharra ikusten dugulako. Asko dira tokian-tokian gai ezberdinen bueltan antolatuta dauden taldeak, izan basogintza eredia lantzen dutenak, elikadura burujabetza lantzen dituzten kontsumo talde eta nekazariak, erraustegiaren aurkako taldeak, AHTaren aurkakoak... Baina ikuspegi orokor batetik begiratuko duen mugimenduaren falta igartzan dugu, ekologismoa modu transbertsalean landuko duena eta gai sozialekin lotuko duena. Izan ere, gure egunerokoan ekologismoak arlo askotan bustitzen gaitu, nahiz eta kontziente ez izan. Borroka ekologista klasikotik haratago joan nahi dugu, eta krisi ekosoziala agenda politikoaren

erdigunean jarri. Helburu nagusia jendartera heltzea izan beharko litzateke, gai ekologikoak bizitzen ari garen krisi honetan eztabaidagai egon daitezen.

Zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?

Esan bezala, ekologia erdigunera ekartzea eta gai sozialekin uztartzea da helburu nagusia. Ekologismoa eta krisi ekosoziala agenda sozial eta politikoaren erdigunera eramatea, alegia. Horretarako gure artean saretzea, beste gai batzuetan politizatuta eta aktibatuta dagoen jendea ekologismora hurbiltzea eta jende ez politizatuaren aktibatzea izango da erronka handiena.

Nolako trantsizio energetikoa egitea proposatzen duzue?

Trantsizio energetikoa beharrezko trantsizio ekosoziala proposatzen dugu. Horrek dituen zailtasun guz-

tiak kontuan hartuta, ikuspegi global eta orokor batetik begiratu, begirada sistemikorekin. Trantsizio ekosozialak energia berriztagarrien inplementazio azkarra behar du, baina ez edozein modutan. Irizpide eta baldintza minimo batzuk ezinbestekoak dira: planifikatua izan behar du, parte hartzailea eta demokratikoa. Makroproiektu berriztagarriak jartzearekin bakarrik ez dugu arazoa konponduko. Egun trantsizio energetikoa korporazio handiek zuzentzen dute, helburu nagusi bakarra etekin ekonomikoa ateratzea dute eta ez dago modu ordenatu eta planifikatuan planteatuta. Kontsumo energetikoaren murrizketa handi batekin batera planifikatu beharko litzake horien instalazioa, eskala ezberdinetan, parte-hartze publikoarekin, inpaktuak kuantifikatuta edo aztertuta eta erreparazio eta konpentsazioak kontuan hartuta, eta horiek sor ditzaketen etekin ekonomikoa eta sozialak kalteak izango direnekin elkarbanatu. Sentsazio orokorra da, erregai fosilak ordezkatu baino mix energetikora gehitzeko planteatu direla modu inposatu batean. Bestalde, klima larrialdien kausa eta

"Krisialditik modu duinean ateratzeko, nola nahi dugun bizi birpentsatu behar dugu"



Jauzi Ekosoziala ekimenaren bozeramaileetako bat da Ajuriagerra.

ondorioez, biodibertsitatearen galeraz, gure eredu sozioekonomikoaren jasangarritasunaz, gure mugikortasunaz, gure kontsumo ereduaz, gure pribilegioez gutxi egiten da berba, eta klabeak dira trantsizio justu baterantz joateko. Baliabide mugatuak dituen planeta batean hazkundean oinarritutako sistema ekonomikoa ezartzea izan da hona ekarri gaituen arazoa. Energia zertarako eta norentzako galderari erantzun behar diogu alde batetik, eta gero, non eta nork sortuko duen. Denon bizitza duinak eta oinarritzko beharrak asebetetzeko, beharrezkoa da energia kuantifikatzea, eta horretarako beharrezkoak izango ditugun azpiegiturak zeintzuk izango diren kalkulatzeko, ahalik eta inpaktu txikiena dutenak bilatzea, etab

Prest gaude trantsizio horretarako?

Ez gaude prest, baina ahalegina egin behar dugu, bestela inposatu egingo zaigu. Neurri batean aldaketa baten aurrean sartuta gaude, pobretze prozesu batean murgilduta gaude, eta bizitzaren garestitzearekin batera, gure kontsumo ereduak ere aldatzen hasiak gara desazkunde baterantz. Beste eredu baterako trantsizioa bideratzeko, ezinbestekoa da gizartean adostasunak bilatzea, gure burua berramatzea eta gizartearen erdigunean beste helburu batzuk jartzea. Krisialditik modu duinean ateratzeko, nola nahi dugun bizi birpentsatu behar dugu, guztiontzat beharrezkoak diren ase beharrak zeintzuk diren, ondasunak nola banatzen diren, lanak, zaintza eta denbora,

gizartean erabakiak nork eta nola hartzen dituzten...

Zer iruditzen zaizue LPSak gure mendietan parke eolikoak jartzeko egindako proposamena?

Ez ditugu LPSak aztertu, ez gara adituak horretan eta ez dugu gure eginkizun bezala hartzen. Baina iritzi bat ematearren, eta oker ez banago, LPSa ez dago bukatuta eta moldaketak izango ditu. Ziur nago planteatzen diren leku askotan ezingo direla horrelako proiektuak aurrera eraman, ezin baita soilik ekoizpena kontuan hartu, naturababesgunez gain korridore ekologikoak eta bestelako plan sektorialak ere integratu behar direlako. Bestelako eredu sozioekonomiko bat aldarrikatu nahi badugu, kontuan hartu behar ditugu zein lur erabiliko diren elikadurarako eta abeltzaintzarako, zein basogintzarako, zein lur babestu behar diren interes handiko naturguneak direlako, zein industriarako... eta agian kontsumo energetikoa murrizteko plan sektoriala ere aldarrikatu beharko dugu. Plangintza integratuta aldarrikatzearen aldekoa naiz, modu ordenatuan, nahi eta behar dugun eraldaketa planteatzeko, trantsizio ekosozial baten bidean.

Debabarreneko herritarren iritzia

GAIA GERTUTIK EZAGUTZEN DUTEN ESKUALDEKO HERRITARREN BERBAK



ALAIN ULAZIA


ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
GRADUKO IRAKASLEA EHU-N

Irudikatu 40 elefanteko talde bat Usain Bolten abiadan korrika. Kuadrilla horrek duen potentzia xurgatzeko kapaz da gure super-

kontsumoa mutur parean ikustarazten digun haizerrota erraldoi bat. Nola ikusten duzu jendez hustutako Burgos, Nafarroa eta Aragoiko mendialdeak erraldoi hauekin josi eta gero honantz argindar kable potolo bat botatzea? Edo eskola aurkezpen batean ume batek esan zidana: “Ba! Zetako errota horrek, Espaini aldian zentral nuklear batzuk ipini eta lixto!”. Aurrezpen energetiko nabarmena (adb. %50 2050rako) eta erabateko dekarbonizazioa premisatzat, dauden parkeak aprobetxatuta haizerrota modernoagoak ipintzeko, garraioa kolektibizatuta,

fotoboltaika eta eolika txiki-ertain komunitarioa erruz bultzatuta udalerrri mailan, eta mendi-goietan ura metatuko duten deposituak erabilia bateriatzat, erraldoi haue-tako oso gutxi beharko dira.

"Eskolan ume batek esan zidana: Ba! Zetako errota horrek, Espaini aldian zentral nuklear bat ipini eta lixto!"



JUANKAR ANDRES

HEGAZTIZALEA ETA BLOGEROA

Trantsizio energetikoa premiazkoa da klima-larrialdia dela-eta, eta bat etorri behar da trantsizio ekologikoarekin. Esparru horretan, energia berriztagarriak oso garrantzitsuak izango dira epe motzean eta ertainean. Trantsizioa

eredugarria izan behar da, bai denboran bai forman, eta hura jasangarria dela bermatzeko, erabakigarria da “non” eta “noiz” aldaeren gainean hausnarketa egitea. Eolikoen garapenak errespetatu behar ditu ondare naturala eta bioaniztasuna, balio ekologiko handia duten espazioetatik kanpo geratu behar dira, eta jada degradatuta eta antropizatuta dauden inguruetan kokatu. Izan ere, parke eolikoek eragin negatiboak dituzte hegaztiengan, nabarmentzekoak: hegaztiak hiltzen dira haiek jota, hegaztien habitatak suntsitzen eta aldatzen dira, eta barrera-efektuak eta desplazamenduak sortzen dituzte, besteak beste.

Seo/BirdLifen azken txostenaren arabera, 6 eta 18 hegazti miloi inguru hiltzen dira urtero parke eolikoetan. Nik neuk ikusi dut Oiz mendian eoliko baten pala sai bati kolpea eman, eta hegao apurtzen. Topatu ditut hilda miru gorriak, arrano sugezaleak eta saguzarrak, guzti-guztiak espezie babestuak direnak.

"Nik neuk ikusi dut Oiz mendian eoliko baten pala sai bati kolpea eman, eta hegao apurtzen"



DANEL DE PRADO
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
INGENIARIA

Debabarreanean energia berriztagarrien kuota areagotu beharra agerikoa da; hidraulikoak eta olatu-energiak osatzen dute (autokontsumoaz gain) 2,5 MWko potentzia instalatuko sorkuntza ahalmena, energia-menpekotasuna handia delarik. Gaur egun, aerosorgailu bakar batek potentzia hau erraz hiru-

"EAEn dugun energia defizitari aurre egiteko beste formula batzuk bilatu behar ditugu"

koiztu lezake. Hala ere, paisaian duen eraginaz gain, parke eoliko baten azpiegiturak (sare elektrikoak, pista zabalak...) naturan duen eraginak munta handia du. Lautada eta mendi baxuen erliebean edo malkartsua den Debabarrenean eragin hau zeharo desberdina da. Gainera, betiko suntsitu litezke aisigune diren zenbait eremu (Kalamua eta Karakate, besteak beste). Beraz, eskualdean eta, orokorrean, EAEn dugun energia defizitari aurre egiteko beste formula batzuk bilatu behar ditugu, arreta berezia eskainita eraginkortasunari.



MIRIAN ARRIZABALAGA
BIOLUR

Mendietan parke eolikoak jartzeko asmoak entzutean, haiek jarri nahi diren lekura eramateko eta gero energia garraiatzeko egin behar diren apurketak etortzen zaizkit lehenik burura; fabrikaziorako beharrak batu beharko genituzke aurretik. Bigarren kolpean elikadurarekin egiten dut konparaketa, bi kasuetan kanpo dependentzia oso

"Etengabeko aldaketan bizi gara, baina norantz eta nola aldatu nahi dugu?"

handia dugu eta kontsumoan eta xahuketan, munduko batez beste-koekin alderatuta, gainetik gabiltza. Koktelak osagai gehiago ditu, baina datu batekin osatuko dut: azken bi hamarkadetan aurreko mende guztietan baino lur gehiago artifizializatu da eta bailararen industrializazio maila dugu horren adibide. Instalazioak egitekotan, lehenik eremu horietatik hasi beharko genuke. Elikatu ala konektatuta bizi? Lurra, ura, haizea eta eguzkia, jana eta energia; bi behar eta eskubide, jada gizartearen zati batek ase ezin dituenak. Etengabeko aldaketan bizi gara, baina norantz eta nola aldatu nahi dugu?



DIEGO MENDOZA
DEBANATURA

Debabarreneko energia berriztagarrien LPSaren aurrerapena dela eta, parke eolikoaren kopuru harri-garri batek mehatxatzen dituen gure mendien amaiera hori gure munduaren amaiera izango da. Ez dut exageratzen oso gai garrantzitsua dela esaten badut, beti gure askatasun, ezinegon eta ongizate amaigabearen arnas izan diren

"Horrela harrikatu nahi dute betiko gure mendietako paisaia"

mendi horien gainean ezartzen den mehatxu horrek ezinezkoa egiten baitu oraindik ere hala izaten jarraitzea. Orain, betiko botere horiek, atzean izen berberak dituztenak, interes berberak dituztenak, oparotasun sakrosantuen izenean eta baliabideen krisi-egoera bati erantzungo dion trantsizio energetikoaren bandera faltsua goratuz, aurrekoak bezain kaltegarria den industria berri batekin aurkeztzen dira, energia berdeak deitzen dituztenekin, baina ez direnekin. Horrela harrikatu nahi dute betiko gure mendietako paisaia, benetan geratzen zaigun gauza bakarra.




ISA PRIETO
GEOGRAFOA

Onartu behar dut ez dudala proiektua bere osotasunean ezagutzen, ezta xehetasun teknikoak ere. Nire printzipioetan oinarrituta, ezarri ditzakegun era guztietako energia berriztagarrien alde nago, gure energia-kontsumoaren ondorioak murrizte aldera. Era berean, uste dut formula jasagarrien esparruan ezin direla aplikatu irtenbide-eredu berdinak beti, eta leku baterako egokia dena bali-

"Ezarri ditzakegun era guztietako energia berriztagarrien alde nago"

teke aproposa ez izatea beste leku baterako. Energia berriztagarrien kontsumo kooperatiba bateko kontsumitzailea naizen heinean, badakit ere argindarraren fakturaren prezioa gutxitzeko formularik onena dela baliabideak optimizatzea, bai ekonomiari bai ingurumenari erreparatuta. Izan ere, energiaren larregizko prezioaren inguruan bolo-bolo dabilen eztabaidaren aurrean, galdera bat datorkit burura: gutxiago kontsumitu nahi dugu, ala bakarrik gutxiago ordaindu?



OIER ETXEBARRÍA
GOIENER

Etorkizunean zein gizarte eta kontsumo eredu izango ditugun hausnartu beharra daukagu. Zenbat energia beharko dugun eta nola sortu nahi dugun ere erabaki behar dugu. Gaur egun kontsumitzen dugun guztia berriztagarriekin sortu ahal izango dugula pentsatzea ez da errealista. Lurralde, material eta denbora falta daukagu eta beraz, energia beharrak asko gutxitu ezean, kaosa ziurtatuta dago.

"Zenbat energia beharko dugun eta nola sortu nahi dugun erabaki behar dugu"

Goienerren, bazkide boluntario eta langileek osatutako lantalde baten hausnarketa egiten ari gara eta energia berriztagarrien proiektuek sabai ekologikoa eta lurzoru etikoa errespetatzeko oinarriak zehazten ari gara. Goienerretik baldintza hauek proposatu dira: parte-hartze handia eta kalitatezkoa eskatzea, ezaugarri buruzko erabaki-ahalmen handia bermatzea herritarrei, kaltetutako herritarren onartzea, eragindako herritarrei onura ekonomikoak ematea eta ingurumen inpaktua aztertzea.



IOSU AIZPURU
ENERGIAREN ARLOKO
KOORDINATZAILEA MU-N

Energia berriztagarrien alde egin behar dugula ez dago dudarik. Hala ere, energia berriztagarriak instalatzerakoan gizartean, bizigunean eta naturan duen inpaktua baloratu behar da. Gure gizarteak biziko dituen erronka energetikoak berriztagarrien, autokontsumoaren eta efizientzia energetikoa handitzearen batura batekin lortu behar ditugu. Gure bizigunea den Debabarrenean

"Haize gune egokiena izan arren agian ezin da parke eoliko bat egin"

autokontsumoa sustatu eta energia berriztagarri eolikoak sustatzeko ikerketa eta informazio gehiago behar dugu. Erabiltzaile gisa, proiektu desberdinen lokalizazio, diseinu eta kokapenaren erabakiekiko informazio eskasa nabaritzen dugu, eta horrek mesfidantza sortzen du. Bukatzeko, ezin dugu ahaztu naturan izan dezakeen eragina. Hai-ze gune egokiena izan arren, agian, ezin da parke eoliko bat egin. Parke eolikoak bai, baina ez nolanihi.



Jon Momak kontzertua eskaini zuen Lobianon

Martxoko azken larunbat iluntzean eman zuen kontzertua Jon Moma kantautoreak Ermuan. Azken saioak Valladoliden eta Zamoran emanak zituen, eta oraingoan ezaguna zuen publikoa erakarri zuen. Emanaldia Alex Garcia musikariarekin batera egin zuen Lobiano Kulturgunean. Aretoa jendez lepo zegoen, artista ermuarrarentzako benetan pozgarria izan zena, eta esker ona adierazi zien bertakotu ziren guztiei. *Universos* bere lehen disko abestiak jotzeaz gain, letra eta melodia berriak ere eraman zituen. Hala, giro aparta sortu zuen bikoteak, letrak kantaraziz eta publikoa dantzaraziz gitarra eta tronpetaren doinu artean. Ez ziren falta izan ere familiari eskainitako kanta hunkigarriak.



Euskal Birusa Elkarteak kuota pasatuko dizkie bazkideei

Euskal Birusa Euskara Elkarteak apirilaren 3tik aurrera pasatuko dizkie bazkideei 2023ko kuota. Hori dela-eta, helbidea, kontu zenbakia edo beste daturen bat aldatu dutenek elkarteari jakinazi beharoko diote lehenbailehen (euskalbirusa@gmail.com helbidean edota 688 63 28 74 telefonoan). Bazkide izan nahi dutenek ere bi bide horietako edozein erabili dezakete elkartearekin harremanetan jartzeko. Bazkideen ekarpenei esker, Euskal Birusak hainbat jarduera antolatzen ditu Ermuan, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

Ongarai Eskolako ikasleen lanak ikusgai egon dira Udaletxean

Martxoak 8 zela-eta, Ongarai Eskolako 2. mailako ikasleek Euskal Herriko 24 emakume garrantzitsuen biografiak landu zituzten. Lan horiek herrira zabaldu nahi zituztenez, alkatearekin eta alkateordearekin bildu ziren Martxoaren

8an udalbatzarren aretoan, eta haiek in solasean aritu ziren. Azkenean, ikasleek egindako lanak Udaletxeko sarreran egon dira ikusgai martxoan zehar, eta umeentzako zein irakasleentzako esperientzia ederra izan da.




CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE

Arropa eta osagarriak

Orbe Kardinalea plaza 6 Ermua, Bizkaia
678 359 337

mediterranea_vintage
mediterranea.vintage

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidia 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Kontumetukua z/g. 941010527



Pispiluen arbolaren magnolio lorak, Ermuko Baldespinako Markesaren parkean.
Argazkilaria: Nacho del Río.



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGUAK
943 030 299



Kike Amonarriz. Argazkia: Xabier Cañas.

Kike Amonarrizek eta Amelia Barquínek parte hartuko dute Berbetan Jardunaldietan

Apirila, maiatza eta ekaina bitartean burutuko dira aurtengo Berbetan Jardunaldiak eta, Kike Amonarriz filologoarekin eta Amelia Barquín irakaslearekin solasaldi bana egingo da. Horiez gain, Ermuko hainbat kirolarik hitzaldia eskainiko diete Institutuko ikasleei.

Testua **DORLETA VIDAL**

Euskal Birusa Euskara Elkartea buru-belarri ari da lanean aurtengo Berbetan Jardunaldietako egitaraua osatzeko. Arduradunek azaldu dutenez, apirilaren 24an, astelehena, Kike Amonarriz euskal filologoa, umorista eta telebista aurkezlea izango da Lobiano Kulturgunean, 19:00etan. Elkarriketa formatuan burutuko da saioa, eta Amonarrizek euskararen erabilerarekin lotutako hainbat galderari erantzuna eskainiko die.



Amelia Barquín. Arg.: Barren aldiakaria.

Bi aste geroago, maiatzaren 8an, astelehena, Amelia Barquín izango da Lobianon, 19:00etan. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakaslea eta kulturartereko hezkuntzan aditua den bilbotar honek “Euskara, generoa, klasea eta jatorria eskolan” izango du hizpide. Aipatutako bi saio hauek doakoak izango dira, eta ez da beharrezkoa aldeztu izena ematea.

Hirugarren saioa, oraindik ere lotzeko dagoena, Ermuko Institutuko ikasleei dago zuzenduta, eta ekainean burutuko da seguruenik. Bertan Ermuko bi kirolarik parte hartuko dute, eta euren kirol-esperientziaren berri emango diete bertaratuakoei.

Ermuan Bagara

Horrez gain, herriko euskaltzaleek ekainaren 3an burutuko den Ermuan Bagara egitasmoaren 3. edizioa prestatzen dihardute. Ermuko Euskaltzaleen Sarea osatzen duten eragileek hainbat bilera egin dituzte dagoeneko, eta guztien artean egitarau zabala prestatzen ari dira: jolasak, erakustaldiak, bazkaria, musika... Antolaketa martxan dagoen arren, egunean bertan edo aurretik lagundu nahi dutenek edota ekarpenak egin nahi dituzten guztiek euskalbirusa@gmail.com helbidera mezua idatzi dezakete.

Horrekin lotuta, dagoeneko salgai jarri dira ekimeneko kamisetak, umeentzat zein nagusientzat, eta egun hauetan erosi ahal izango dira Patxi Plazan: apirilaren 1ean 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 20:00ak arte; apirilaren 2an, 12:00etatik 14:00ak arte. Bi egun horietarik kanpo, Euska I Birusaren bulegora jo daiteke kamisetok erostera (Erdikokale zeharbideko 2. peoran): astelehenetik ostiralera 8:00etatik 12:00ak arte.



Egoitzetako hainbat langile Sabin Etxearen aurrean, Bilbon, Martxoaren 8an. NEKANE OLALDE.

Hainbat greba burutuko dira egoitzetako baldintzak hobetzeko helburuarekin

Testua **DORLETA VIDAL**

"Egoitzetako egoera jasangaitza da —adierazi du Abeletxe Egoitzako LAB sindikatuko kidea den Nekane Olalde—. Egoiliarrei behar-beharrezkoena baino ez zaie ematen, eta zainzaileok ez daukagu baliabide nahikoak gure lana ondo egiteko". Hitz hauen atzean urte askotako nekea eta haserrea daude, eta hori salatzeke mobilizazio, greba, marxa eta baraualdiak burutuko dituzte langileek datozen asteetan.

Ekintza hauek helburu ezberdinak dituzte. Alde batetik, Eusko

Jaurilaritzak eta Aldundiak ezarritako ratioak aldatzeko eskatzen dute. Izan ere, Olalderen arabera, Ermuko egoitzan langile bakar batek 31 egoiliar artatu behar ditu gauean; egunez, aldiz, bi langile eta erdi egoten dira pertsona kopuru hau garbitzeko, jaten emateko, komuna eramateko, senideak bisitan doazenerako prestatzeko... "Horrek mugan jartzen gaitu, estresa sortzen digu, neke fisikoa... Eta horretan eragina handia daukate erabiltzen ditugun baliabideek ere: oso zahar-

Abeletxe Egoitza kudeatzen zuen enpresa 2019an aldatu egin zen, eta txarto zegoena, okerrera joan zen bertako langileen arabera. Ermuko Egoitzaren egoera ez da salbuespena, Bizkaian, Euskal Herrian eta estatu osoko egoitzetan gertatzen ari den errealitate berbera baizik. Langileen eta baita egoiliarren baldintzak hobetzeko helburuarekin, mobilizazioak eta grebak burutzen ari dira langileak sindikatuek deituta.

tuta daude, ez delako inolako inbertsiorik egiten". Janarian ere, gero eta diru gutxiago gastatzen da, eta janariaren kalitate eskasa eta kopuru txikiak nabarmentzen dituzte.

Gizartea kontzientziatu

Langileek salatzen dute ere "zabor kontratuak" egiten direla batez ere, bajak ez direla ordezkatzeko eta euren soldatak ez direla 2019tik igo, besteak beste.

Eta azkenik, mobilizazio hauen helburua bada ere gizartean eragitea. Langileen arabera, herritarrek ez dakite zein den egoitzetako egoera, eta jakitun egin nahi dituzte, "haitako askok bertan bukatuko dutelako", esan du Olalde. Aditza eman dutenez, enpresak ez dauka negoziatzeko asmorik, eta hori dela-eta maiatzera arte luzatuko dituzte mobilizazioak.


**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Goienkale 12 *Le-apurtegi bat
baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokitutako burua
zarbitzeko konketa



Probaleku z/g
(ERMUA)
Pintxoak
Razioak
Kaxolak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
699 292 043
636 549 154





ASIER MADARIETA · Geologoa

"Antartikako izotz masen aldaketek eragiten dituzten prozesuak aztertuko ditugu"

Antartikatik itzuli berri da Asier Madarieta ermuarra, bertan hilabete eta erdi eman eta gero. Lurreko eremu elektromagnetiko naturala neurtzen aritu da, besteak beste, eta aitortzen du maila profesionalean zein pertsonalean ere, bidaia zoragarria izan dela.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zein izan da zure zeregina Antartikan?

Granadako Unibertsitatean egin dut lan, eta teknika magnetotelurikoa erabiltzen dugu lurreko eremu elektromagnetiko naturala neurtzeko. Bidaia honetan teknika hori erabili dugu hainbat datu jasotzeko, eta haiek baliatuta, Antartikako penintsulan izotz masen

aldaketekin eragiten diren prozesuak aztertu ahal izango ditugu, hala nola prozesu tektonikoak edo geologikoak. Azken finean, mundu osoko itsas-maila estuki lotuta dago Antartikako izotz-geruzaren aldaketekin. Bestalde, Deception uharteko datuak jaso ditugu baita ere. Aktibo dagoen sumendia denez, eremu elektromagnetikoa neurtuz

gero, jakin genezake zer nolako egitura duen sumendiak lur azpian, 20 kilometroko sakoneran gutxi gorabehera: sistema hidrotermala, ganbera magmatikoa... 2022an ere bi hilabete eman nituen bertan, eta orduan hasitako proiektuari jarraipena eman diogu.

Zenbateko tenperaturekin burutu behar izan duzu lana?

Kontutan izan behar da orain bertan uda dela, eta batezbesteko tenperatura zero gradukoa izan da. Gainera, deigarria zen eguneko ordu gehienetan argia zegoela, ez zuen iluntzen.

Badago besterik atentzioa eman dizunik bidaia hauetan?

Paisaiari dagokionez, oso noizean behin ikusten genuela lurra, dendena izotza delako. Eta horrez gain, pinguinoak eta fokak ikustea oso berezia izan da ere, guretzat animalia arrotzak direlako.

Zer nolako esperientzia izan da?

Lan esperientzia zoragarria izan da, teknika magnetotelurikoa ezagutzen banuen ere, ez neukalako esperientzia handirik. Eta maila pertsonalean ere oso aberasgarria irudituz zait, herrialde askotako pertsonekin harremana izan dudalako.

Zer moduz bertarainoko bidaia?

Bidaia luzea izan zen. Hegazkinean joan nintzen Txiletik Antartikara, baina buelta itsasontzian egin nuen. Bost eguneko bidaia izan zen Drake itsasoan zehar, munduko itsasorik zailenarikoa, eta itsasontzia asko mugitzen zen.

Zein motatako itsasontzia zen?

Espainiako BIO Hespérides ontzi ozeanografikoan joan gara, 85 metroko luzera duena, eta bertan Espainiako Programa Polarrean parte hartzen duten proiektu guztietako langileak elkartu gara, 200 inguru. Buelatu nintzenez, bakarrik egoteko gogoia ere banuen, egia esan!



Charo de Cruz, erraketista:

“Azken erraketista profesionalak izan ginen gu” (eta II)



Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Ume-umetatik maite zuen Charok pilota jokoa, eta Madrid frontoiak eskaini zion profesional gisa jokatzeko aukera, erraketista arituz bertan. Kirolaren gainbehera gertutik bizi zuen, eta pilotarien lan-baldintzak hobetzeko borrokan parte aktiboa izan zen.

Aurreko alean Charo bere armeria-dendako eta frontoiko lanak tartekatzen utzi genuen, eta libre zuen asteburuetan lagunekin ehizara joaten. Kantxan aurrelari postuan jokatzaren Charik; sake indartsukoa zen, saketik jarraian 15 tanto egitera iritsitakoa. Hain bizi botatzen zuen, sakea kendu egin ziotela, marra bi atzeragotik bota eraginez, karteletan ere horrela iragarritz. “Sakearekin, tantoa eginda edo erdi eginda duzu” esaten du maisuki. Ezker edo eskuin, biekien ematen zion eta, orduko prentsaren arabera Madrid frontoiko sasoiko sakerik onena zuen eta bera munduko onenen artean kontsideratua zegoen. “Munduko lau erraketista onenak jokatu dute, Madrid frontoia delako espezializate horren eszenatoki bakarra eta eurak direlako ukazineko txapeldunak” (“*indiscutibles campeónsimas*”) Charik jokatu zuen partida baten prentsa artikulua zioen bezala.

Mireslez inguratuta

Partidu kopuru zehatza irabazteak kategoriaz igotzea zekarren “30 partidutik 20 irabazi ezker, gorantz. Galdutakoak gehiago izan ezker, apustulariek eta miresleek ez zintuzten aintzakotzat hartzen eta ez zintuzten



txalotzen". Harmailetan ohikoa zen miresle asko izatea, bere alde jokatzeko zutenak kinnieletan. Irabazi ezkerororatu egiten ziren txaloka eta bibaka; gero pelutxezko panpinak, loreak edo tartak oparitzen zizkioten. Baina egun txarra izanez gero orroak eta irainak jasan behar izaten zituen "Partida botatzen ari zara!", "Gaur kendu egingo dizute!", "Zoaz harrikoa egitera!" eta horrelako komentarioak bere akorduz.

Dionez indarra izateko aparteko ezer hartu barik kantxaratzen ziren. "Gure sasoiak ez zegoen drogarik ez istoriorik. Baina gogor elikatzen ginen: nik jaten nuen odola kipularekin, gibela, okela ia gordina nahi beste eta esnea, esne ugari. Eta erre eta edate kontuak, debekatuta!" dio ordukoak gogoratuta. "Eskuturrekoak jartzen genituen mina genuenean. Ura eta gatza, ozpina, pomadak... apartekorik ezer ez, asto samarrak ginen. Eskumuturrak, besoak eta hankak sufritzen zuten gehien" gehitzen du.

Auzitan enpresarekin

Harrotasunez gogoratzen du Madrid pilotalekuko azken 20 erraketista koadroan egon zela, greba egin eta jabea salatu zuten talde "errebelde" hartan, Gizarte Segurantzaren eta erretirorako pentsioa lortuz pilotariorintzat. "Telebistan egon ginen, irratian Jose María García esatariak elkarrizketatu gintuen, prentsan ere eman zen gure aldarrikapen berri. Kantxara irten eta protesta gisa ez genuen jolastan eta azkenean lortu genuen gure helburua", kontatzen digu ermuarrak. Frontoiko jabeak erraketista guztiak kaleratu zituen, Gizarte Segurantzaren demandatzeatik; epaiketa irabazita berriro kontratatu behar izan zituen. Auziek eta negoziaketek urteak iraun zituzten, eta aurretik aritutako erraketistei ez zitzaie inongo eskubiderik aitortu ez atzerapenik ordaindu. Pribilegiatuen artean egon zela sentitzen du Charok.

Madrid frontoia izan zen aktibo egon zen azkena eta bertan ari zirenak Espainiako azken erraketista profesionalak. Itxieraren motibotzat Charok aipatzen



Madrid frontoiko erraketistak eta palistak.

"Pilotari agur esanda, luzaroan faltan bota zuen kantxaren adrenalina"

ditu entrenatzaile falta eta enpresari auzia irabazi izana: honek Gizarte Segurantzaren pilotari guztiak altan emateaz gain, atzeratutako zorrak ordaindu behar izan zituen "milioika peza" bere berbetan.

Pilotari agur esan zionean, denboraldi luzez faltan bota zituen txalokak, ikusleen berotasuna, kantxako adrenalina... Arma-dendan zentratuz eta bidaiatuz arindu zitzaion. Urteetara Andaluziara joan zen: hondartza ondoan txiringito bat jarri, lagun berriak egin... Gaur egun Malagan bizi da, Torre del Mar-en, pozarren. Han klimagatik eta itsasoaren gertutasunagatik bizi den arren, Ermuko bizipenak ahaztu barik ditu. "Ermukoa naiz, Ermuan hazi nintzen eta Ermuko sentitzen naiz" azpimarratzen du irmoki. Erraketista zeneko sasoiak ere maitasun bereziz gordetzen du. "Pilotari izateko ametsa betetzeko aukera eman zidan erraketan aritzeak" aipatzen du esker onez.

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

uriarteasesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Ezkerraneko tabernia



Zubiaurre 11n dauan etxiaren beheko aldia taberna izan zan aspaldi eta halantzek segitzen dau izaten. 1930 urtian ostatu lez dago erregistratuta. 1947an Manuel Isasi-Isasmendi eta Mercedes Gabilondok hartu zeben, bai tabernia eta baitxa goiko solairua be, eta Matilde alabak bere lehen erizain-kontsultia jarriko zeban bertan. Txikito batzuk hartuta, kantau eitxen zeben askok haren barra onduan; kontu batzuk esan eta karta-jokuan gogor eguerdiostero eitxen zebanik be bazan. Urtietan bikotiaren Irene alaba kargotu zan taberna eta sukalde bueltiaz. 1983an Roberto Montotok eta Eugenia Carracedok erosi eta, taberniaz gain, jatetxia be jarri zeben. 1995tik, itxuria guztiz aldatuta, Déjate Querer tabernia da.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOKO

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Komiki tailerra burutu zuten 5. mailakoek



Otsailean 5. mailako ikasleek "Komiki Tailerra" landu zuten Martin Azpilikueta marrazkilariaaren eskutik. Bertan, komikietan agertzen diren marrazkiak egiteko hainbat baliabide lantzeko aukera izan zuten. Bukatzeko, gure artistek ekin-tza honetan ikasitako guztia praktikan jarri zuten marrazki dotoreak eginez.

"Enpresa sortzaileak" proiektua

Urtero bezala, 6. mailako ikasleak "Enpresa sortzaileak" proiektua lantzen ari dira. Gizarte arloan, jarduera ekonomikoei buruz ikasitakoa abiapuntutzat hartuta, talde bakoitzak kooperatiba bat sortu du eta lan sendoa burutu: estatutuak idatzi, enpresaren logoa asmatu, merkatuaren azterketa, negozio ideia planifikatu, aukeratutako produktuak ekoiztu, eta azkenik, merkatua antolatuko dute beraiek sortutako produktuak saltzeko. Honetara eskolako agente ezberdinak gonbidatuko dituzte partaidetza bultzatzeko asmoz. Proiektu hau arlo ezberdinetan jorratzen da, adibide gisa, publizitatea artistikan eta bertsolaritzan, eta aurrekontuak matematiketan.



Urtero bezala, 6. mailako ikasleak "Enpresa sortzaileak" proiektua lantzen ari dira. Gizarte arloan, jarduera ekonomikoei buruz ikasitakoa abiapuntutzat hartuta, talde bakoitzak kooperatiba bat sortu du eta lan sendoa burutu: estatutuak idatzi, enpresaren logoa asmatu, merkatuaren azterketa, negozio ideia planifikatu, aukeratutako produktuak ekoiztu, eta azkenik, merkatua antolatuko dute beraiek sortutako produktuak saltzeko. Honetara eskolako agente ezberdinak gonbidatuko dituzte partaidetza bultzatzeko asmoz. Proiektu hau arlo ezberdinetan jorratzen da, adibide gisa, publizitatea artistikan eta bertsolaritzan, eta aurrekontuak matematiketan.



Inauteriak Esti Gonzálezen eskutik

Otsailean 6. mailako ikasleek Esti Gonzálezen "Ermuko ihauteriak" hitzaldiaz gozatu zuten. Aurkezpen honen bidez, Ermuko aratusteak hobeto ezagutzeaz gain, hamaika bitxikeria interesgarri entzuteko aukera izan zuten. Estirekin ikasi dutena asko eta interesgarria izan da. Seguru aurtengo eta hurrengo inauteriak beste ikuspuntutik bizitzeko aukera izan eta izango dutela.

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL Y BAJOS COSTOS
ORDENURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZERMÍK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMÍK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



ALICIA LORENZO

Alarma egoera

Azkenaldi honetan fenomeno berri baten lekuko izaten ari gara komunikabideetan: alarma eragiten diguten mezuen zabalkunde indiskriminatua. Edozer gauzak balio du gu alarma egoeran jartzeko eta beldurra, haserrea, gogaitasuna hedatzeko.

Azkena, Aitaren Egunaren harira. Maistra batek ez dakit non azaldu zuen, beraien eskolan ez zutela jada ospatzen Aitaren Eguna, umeen errealitate ezberdinak errespetatu ahal izateko. Ezer berri, nire ustez... Bada, honi buelta eman, eta azken urteotako eskubide murrizketarik handiena izango balitz moduan hartu zuten batzuk. Asko 2023an enteratu dira eskoletan horrelako erabakiak hartzen direla, hainbeste erreklamatzeko dugun "eskola inklusiboen" bide horretan jarraitu ahal izateko. Harrigarria!

Orain jakin izan dute eskoletan familia mota ugari daudela eta denek errespetu bera merezi dutela. Badaudela bi ama edo bi aita dauzkaten umeak, edota aita hilda, kartzelan edo ama jotzeagatik urruntze-agindu batekin dutenak. Ahaztu gabe aita Senegalen, Pakistanen edo Ukrainan dituztenak, edota non dagoen ez dakitenak, ez dutelako inoiz ezagutu... Horretaz ez dira jabetu? Benetan gai dira eskolan makarroiekin egindako eskulana jasotzeko "eskubidea", beste ume hauei sortu ahal dieguz minaren gainetik jartzeko? Berekoikeria? Beldurra?

Lasaitasun mezu bat bidali nahiko nieke: martxoaren 19ak Aitaren Eguna izaten jarraituko du, nahi duenarentzat. Ez du inork esan zure etxean ospatu ezin duzunik. Nahiz eta eskoletan ez egin.

Jarraitu ahal izango duzue aitaxorik onenak zaretela erakusten, eta zorionduko zaituztete. Zorionak! Umeen gaueko negarrak entzun eta kontsolatzera altxatzen zaretenoi. Zorionak! Hurrengo eskulana egiteko kartulina erosten gogoratzen duzuenoi, galtzerdiak txiki geratzen zaizkiela dakizuenoi eta berriak erosten dizkiezun guztioi, hor zaudetenoi erantzukizunez... guzti-guztioi ZORIONAK ETA URTE ASKOTARAKO!!

Baina pribilegioak ez diezazuela enpatia ezabatu.

"Edozer gauzak balio du gu alarma egoeran jartzeko eta beldurra, haserrea eta gogaitasuna hedatzeko"

JOSU RIOJA GONZÁLEZ

Hiru anaien artean txikiena, 35 urte ditu eta Scorpio tabernako jabea da.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?
Bada, tabernan eta plazan. Gura-soek taberna zeukatenez, hemendik ibiltzen nintzen, eta gero korriketan plazara.

Eta gaztaroa?

Lanean eta parrandan. Nire parrandak berandu hasten ziren beti, lana egin ostean irteten nintzen-eta.

Oso gazte hasi zinen lanean?

Bai, hamalau urterekin botilak jasotzen hasi nintzen tabernan, eta horrekin dirutxo bat ateratzen nuen. Gerora ere beste lan batzuk izan ditut baina azkenean tabernan jarraitzen dut.

Eta beti nahi izan duzu tabernaria izan?

Ez. Umetan al baitaria izan nahi nuen, baina al baitari basatia nolabait: ikasi eta gerora hortik zehar joan animalia basatiak zaintzen. Txikitari gure etorkizuna nola ikusten genuen marrazteko esan ziguten, eta neure burua horretan ikusten nuen. Hainbesteari non azkeneko binetetan nire gorpua oihanean eta animalientzako janari bezala ikusten nuela.

Zaila izan zen taberna zure gain hartzea?

Agian erabakirik zailenetakoa. Azken finean taberna nire gain hartzeak esan nahi zuen hemen gertatu nintzela, nolabait nire bizitza erabakita zegoela. Eta hori erabakitzea beti da zaila.

Zer da tabernari lanaz gehien gustatzen zaizuna?

Saturatzea. Momentu hori non jen-

de asko dagoen, eta hurrengoa nor den, eta zer nahi duen, eta prezioak buruan edukitzea...

Eta gutxien?

Jende astuna. Beti deika dabilena, askotan tontakeriak esateko.

Taberna heavya edukita, musika estilo hori asko gustatuko zaizu, baina besterik entzuten duzu?

Bai, heavya gustatzen zait, baina edozer entzun dezaket. Egia esan ez dut musika entzuteko beharrik izaten.

Musika munduan, ordea, aktibo zaude, ezta? Kontzertuak-eta presatzen...

Hala da. Taberna kanpoko plazan kontzertu batzuk antolatzeke ideia dugu. Hasieran bazkide batekin egin behar nuen, baina ez zuen funtzionatu. Gerora Zutikeko jabearekin batu, eta plaza honetako tabernen artean zerbaite egitea erabaki genuen, plaza hau berrituz pizteko. Horretarako hilean kontzertu bat egiteko ideia dugu, hilabeteko azken ostiralean. Badakigu egun horretan San Pelayon pintxopotea dagoela, eta horren ostean jartzea erabaki dugu, 20:00ak edo 21:00ak aldera. Oraindik proiektu bat den arren, aurrera ateratzea gustatuko litzaiduke.

Zer egiten duzu denbora librean?

Beste gauza batzuen artean, gauzak konpontzea gustatzen zait. Edozer dela ere ireki, barruan zer dagoen begiratu, eta hura konpontzen saiatu.

Kirolen bat gustatzen zaizu edo



praktikatzen duzu?

Ba kirol guztiak gustatzen zaizkit. Egia da gaur egun ez dudala ezer praktikatzen, baina denetik gustatzen zait. Eskalada probatzea gustatuko litzaidake.

Zinea, irratia, irakurtzea edo horrelakoak gustatzen zaizkizu?

Bai. Asko disfrutatzen dut beste artista batzuk egiten dutenaz gozatzen. Egia da ez dudala asko irakurtzen, eta gehiago egitea gustatuko litzaidakeela. Eztabaida bat dagoenean irakurtzen dut normalean, mugikorra hartu eta gai horren inguruan Wikipedia osoa irakurriz.

Baduzu akatsik?

Burugogorra naizela, agian. Tinko eusten diet nire ideiei, baina egia da oker nagoenean onartu egiten dudala.

Hori izango litzake zure bertutea.

Bada bai, egia esan.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Jende hipokritak.

Eta zerk eragiten dizu barrea?

Edozein tontakeriak. Asko gustatzen zait barre egitea, eta besteei barrea eragitea ere. Nahiko pailazoa naiz horretarako.

Zerbaitegin ez izanaren pena duzu?

Berez ez. Egia da gauza batzuk ez ditudala egin, eta agian gustatuko litzaidakeela egitea, baina ez nuke esango pena dudarik.

1953

E R M U A

Martxoaren 8a zen lagun aldratxo hau Oñatira Munduko Ziklo-kross Txapelketa ikustera joan zenekoa, eta autobusaren atzean erretratatu ziren. Bertan daude atzetik hasita eta ezkerretik eskumara begiratzuz:

Luis Mari Izagirre, José Antonio González, Javier Agirregomezkorta, José Antonio Olabarri, Mateo Bilbao, José Mari Ugarteburu, Pedro García, Jesús Arrizabalaga, Angel Fernández eta Sergio Lezaun.



1923

M A L L A B I A



Bidarteko San Pedro ermita ondo-ko soloan, Mallaetxebarri baserriko Paulino Milikua Gallastegi eta honen alaba Rosario, idi-bikoteaz beharrean. Bonifacia Angiozar Amillategirekin ezkontuta, 10 seme-alaba izan zituzten 9 neska eta mutil bakarra, hamargarrena: Petra, Margari, Cresen, Tomasa, Dominga, Maria Luisa, Rosario, Julia, Jesusa eta Benigno.

IRAGARKI LABURRAK

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 68 36 55.

EHUko fisikako ikasleak eskola partikularrak ematen ditu: DBHko Matematika, Fisika eta Kimika ☎ 626514969

Pintura/eskultura estudioa konpartitzeko pertsona bat bilatzen ari gara. Ermuko Komentukua kalean ☎ 688695331

Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Ermua inguruan ☎ 688642761



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com Azken eguna: **Apirilaren 21a.**



Apirilaren 9an Zorionak Ekain bihotza! 10 urte, zein handia! Gure bizitzan sartu zinen argia emateko, jarraitu horrela! Maite zaitugu. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



Martxoaren 29an Zorionak Intza! 6 urte haundi! Ondo pasa zure eguna eta segi beti bezain alai eta maitagarri. Patxo haundi bat familia guztiaren partez.



Martxoaren 4an Gure etxeko arrosatxo badoa aurrera. Segi horrela! Muxu potolo-potolo bat guztion partez.



Otsailaren 12an Mare, urte bat gehiago maitea. Pertsona hobekak egiten gaituzu eta plazer bat da zurekin egotea. 13 urte zoragarri izan ditzazula!! Muxu asko etxekoan partez.



Martxoaren 24an Zorionak Ihintza!! 8 urte haundi!! Disfrutatu topera zure eguna! Muxu pilo bat familia guztiaren partez!



Martxoaren 18an Zorionak Pol! Besarkada eta muxu haundi bat familia guztiaren partez zure bostgarren urtebetetzean.



Apirilaren 3an Zorionak Oier, 3 urte! egun politza pasatzia espero dogu, muxu handi bat familiaren partez, asko maite zaitugu!



Martxoaren 12an Zorionak Amaiur!! 9 urte!! Besarkada ta patxo pilua familixan partez, asko maite zaitugu.



Apirilaren 11n Zorionak Libe!!! Lau urte bete dituzu! Asko maite zaitugu, sagutxina. Musu erraldoi bat Lucía, amama, amatxo eta aita txoren partez.



Martxoaren 20an Zorionak Ander!! 6 urte, mutil haundi! Musu pila familia osoaren partez!!

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemord Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

aral@aral97.com | Pol.Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

nitida
T.943176075

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ZINEA

1etik 3ra: "Bajo terapia" + "El extraño"
8tik 10era: "Mari(dos)" + "Llaman a la puerta"
15etik 17ra: "65" + "El castigo"
22tik 24ra: "El imperio de la luz" + "Matria"
29tik 1era: "Oso vicioso" + "Crónica de un amor efímero" Ermua Antzokian. Hainbat ordutegi.



ZINE-KLUBA

Hilak 6: "Los reyes del mundo"
Hilak 13: "El caftán azul"
Hilak 20: "Jericó"
Hilak 27: "A los libros y a las mujeres canto" Ermua Antzokian. 20:30ean.



UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 2: "King, mi pequeño rey"
Hilak 9: "Lau ahizpa magikoak"
Hilak 16: "El hotel de los líos"
Hilak 23: "Dungeons & Dragons"
Hilak 30: "Oink" (euskeraz) Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 1: Rock kontzertua: Etxekalte. 20:00etan. Lobiano kulturunean. Sarrera: 8€.
Hilak 8: Kontzertua: "Sorotan Bele gogoan", Sorotan Bele eta Alboka musika banda. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€.
Hilak 22: Udaberriko jaia, DJen eskutik. 19:00etatik aurrera. Plazan.

Hilak 22: Kalejira La Pache-ca txarangarekin: Gaztela-Leoneko eguna. 13:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 21:00etara..



ANTZERKIA

Hilak 1: "Las piscinas de La Barceloneta", Secun de la Rosaren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€.
Hilak 28: "Un oscar para Óscar" Jon Plazaola, Gorka Aginagalde, Rebeca Lara eta Mara Guilekin. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 15€.

DANTZA

Euskal jaia
Hilak 1: Txindurri taldearen erakustaldia 19:00etan + plaza dantza Patxi eta konpainiaren eskutik 20:00etan.
Hilak 2: Kalejira 12:00etan + dantza erakustaldia. 17:00etan + erromeria Fan & Go taldearekin 17:00etan. Ekitaldi guztiak plazan.



Hilak 21: Erakustaldia Lau-ne, Txindurri, Fit Gipsy Dance taldeen eta Taupada Dantza Eskolaren eskutik. 19:00etan. Orbe kardenalaren plazan.

UMEENTZAKO

EKITALDIKIA

Hilak 1: Haurrentzako ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobiano Kulturunean.
Hilak 22: Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kulturunean.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Zeharbatea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Horts estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Horts klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4
Ermua

Tel.: 943 030 512
niklinika@gmail.com



irale
Horts Klinika
Clinica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



IRAZ
Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com




Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04
info@clincasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666 EGOITZ FORMOSO col.1675



OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.



EGIN

AURREMATRIKULA!

Aukerarik onena, etorkizuna duena



ArmeriaEskola^x

